


...eta!
Kitto!

2017-IX-29

1029 zkia.



Aste osorako plan ekologikoa

INGELES A URTE 1ETIK AURRERA


Kids&Us
school of english

LISTENING



UNDERSTANDING



SPEAKING



READING



WRITING



METODOLOGIA

Ikasi ingelesa ama hizkuntza ikasten den bezalaxe: ENTZUN · ULERTU · HITZ EGIN · IRAKURRI · IDATZI

Kids&Us Eibar · C/ Ego-Gain, 8 · 20600 Eibar · T. 688 607 638 · direccion.eibar@kidsandus.es · www.kidsandus.es · Zatoz gure metodologia berritzailea ezagutzera !!



Baldintza bereziak.
HIRIERDI PROMOZIOA, AZKEN FASEA.
Finantziario baldintza ezin hobekak etxebizitzarako mailegetan

Informazio gehiago Errebal 9an, EIBAR.
Telefonoa: 943 203 940



Euskara Elkartea

ARGITARATZAILEA:
...eta kitto! Euskara Elkartea.

HELBIDEA:
Urkizu, 11. 20600 Eibar

TELEFONOAK:
943 20 67 76 / 943 20 09 18.

FAXA: 943 20 28 72.

ASTEKARIAREN E-MAILAK:
erredakzioa@etakitto.eus
komunikabideak@etakitto.eus
publizitatea@etakitto.eus

ELKARTEAREN E-MAILAK:
elkartea@etakitto.eus /
normalizazioa@etakitto.eus

ERREDAKZIO-KONTSEILUA:
Ana Aizpuru, Itziar Albizu,
Ekhi Belar, Jose Luis Gorostegi,
Silbia Hernandez eta Uxue Igarza.

ADMINISTRAZIOA:
Marisol Uriarte.

KOORDINATZAILEA:
Ana Aizpuru.

ERREDAKZIO-BURUA:
Silbia Hernandez.

**DISEINUA ETA
MAKETAZIOA:** J.L. Gorostegi.

ARGAZKI ARLOA:
Maialen Belaustegi
eta S. Hernandez.

HIZKUNTZA ARDURA:
Juan Andres Argoitia
eta M. Aranberri.

PUBLIZITATEA:
Itziar Albizu eta Belen Ulazia.

TELEFONOA: 943 20 67 76.

AZALEKO ARGAZKIA:
Artxiboa

BANAKETA-ARDURADUNA:
Ainhua Luz.

TIRADA: 8.150 ale.

INPRIMATEGIA:
GERTU koop. (Oñati).

COPYRIGHT-A: ...eta kitto!

LEGE-GORDAILUA: SS/430/92.
ISSN: 1132 - 1679

(*...eta kitto!* k ez du bere gain hartzen
aldizkarian adierazitako esanen eta iritzien
erantzunkizunik)



Eibarko Udalak, Gipuzkoako Foru Aldundiak
eta Eusko Jaurlaritzako Kultura eta Hizkuntza
Politika Sailak diruz lagundutako aldizkaria



EIBARKO
UDALA



GIPUZKOAKO
FORU ALDUNDIA



EUSKO JAURLARITZA
GOBIERNO VASCO

KULTURA ETA HIZKUNTZA POLITIKA SAILA
(HIZKUNTZA POLITIKARAKO SAILBURUORDETTZA)

Eskutitzak

– LEGARRE ZORAGARRIXA –

Lortu dugu aurten ere!! Zazpigarren urtez Le-garren jai euskaldun eta partehartzaileak izan ditu-gar. Auzoko ume, gazte eta nagusi, eta bisitan eto-ri zaizkigun beste hamaikaxo lagun, eguzkipean eta gerotxuago ilargipean zoragarri ibili gara. Lan asko egin dugu aurten ere; baina, dudarik gabe, merezi izan du.

Ostiraleko gaztetxoan afariak arrakasta izugarria izan zuen, ehun ume afaltzen!! Larunbatean II. Kro-noeskilarekin hasi genuen eguna eta garbi gera-tu zen minututxo bat nahikoa dela Untzagatik gure txosnaraino igotzeko. Gero buruhandi (eskerrik asko Elgetako Udalarri), trikitilari, bazkari, pailazo,

dantza, erromeri, kontzertu... Eta umorea, batez ere umorea eta festa gogoa.

Eskerrik asko etorri zineten guztioi. Eskerrik as-ko bihotz bihotzez diruz lagundu diguzuenoi. Eta batez ere legarretarrei, auzo bizi eta ederra dauka-gula geratu zen berriz ere garbi.

Eta ezin ahaztu: errifak erosi dituzuen guztiei ere eskerrak. Hemen aurtengo zenbaki sarituak: 1. Sa-ria 1103; 2. Saria 419; 3. saria 776 eta 4. Saria 655. Chalcha, Gure Leku, Hirurok eta Ongi Etorrin egin-go dute afari bana sarituek. On egin eta segi Le-garre babesten.

Arrajolape Kultur Elkartea

ERREDAKZIOAREN OHARRA

Urriaren 12ko zubia dela-eta, aste horretan (hemendik 15 egunera) ez da alerik izango zuen buzoietan. Kontuan izan, beraz, egun horietarako zorian-agurrik edo bestelako informaziorik kaleratu nahi baduzue. Datorren asteko barixakuan normaltasunez kaleratuko dugun alea izan daiteke aproposa horretarako.

Gure aurrekoek erabiltzen zuten euskera

LUR. - Haitzak desegitean sortzen dena. "Horko lur baltza aproposa ortua egitteko". "Garbitu ondo letxugia, lur asko dauka-eta".

Terrenua. Normalean, pluralean erabiltzen da. "Hango baserriko lurak aberatsak dira". Behe. Gaztelarazko 'suelo'. "Jo kokotian eta lurrera bota eban".

astean esanak

"Normalizazioaz ari garenean, hizkuntza gutxituak nagusien mailara igotzeaz ari gara. Eta nagusitasunean dago gakoetako bat, inork aipatu nahi ez duen fenomeno gertatzen delako hor: hizkuntza nagusia bakarria izan daitekeenez, nagusia izan denak bere posizioa galdu egin behar duela. Ez dut esaten gaztelaniaren kontra egin behar denik, baina des-ikaste prozesua behar da. Kataluniarrek ekintzarik txikiena ere katalanez egiten ahalegintzen dira, euskaldunok gaztelaniaren makulua onartzen dugun bitartean"

(URTI URRTIKOETXEA, IDAZLEA)

"EAEEn gizarte laguntzak jasotzen dituzten 64.000 lagunen artean, iruzur kasuak %1era ere ez dira iristen. 500 milioi banatzen direnez, bost milioi euroko iruzurra egon da. Diru publikoa zorrotz zaintzea ez da kritikatzekoa. Zilegi da inbertitu edo banatutako euro bakoitza dagokion helburua betetzeko erabili dela ziurtatzea. Baina, kasurako, inoiz ez da sinadura bilketarik egin enpresak nazioartera hedatzeko edo teknologia berriak sustatzeko ematen den dirua zorrotzago kontrolatzeko eskatuz. Azken horiek, seguruenik, beharrezkoak izango dira ekonomia indartzeko; baina gizarte laguntzak eskubidea dira, bizitzeko tresna"

(IBAI MARURI, KAZETARIA)

"Ipurdi garbitzaile esaten diote zu eta ni noizbait izango garen bezalako adinekoen ongizateaz arduratzen delako: jaikitzen laguntzen dielako, janzen, orrazten, garbitzen, atontzen, botikak hartzen, jaten. Total, zer egiten dute ba? Lau ipurdi garbitu besterik ez! ugazabarengandik entzundako hori, uste hori, erabat pentsamendu zabaldua bada? Zeren eta nola liteke, bestela, zu eta ni bezalako andre horrek, eta Bizkaiko zahar etxeetan berarekin batera lan egiten duten beste ehunka andrazkok 300 egunetik gora greban bete, eta zuk eta nik zirkirin ere ez sentitzea barruan? Makinak ote dira ipurdi garbitzaileak?"

(IDURRE ESKISABEL, KAZETARIA)



UNAI ARTETXE

Astindu bandera!

Hiru itsas mila. 5.556 metro. Bost kilometro eta erdi. Distantzia hori du Kontxako estropadak, gurean dagoen arraun lehiaketa garrantzitsuenak, gizonezkoetan. 1,5 itsas mila. 2.778 metro. Bi kilometro eta erdi pasatxo. Erdia, alegia, emakumezkoetan. Luze bi eta ziboga bakarria, batzuen zein besteen kasuan. Hamabi arraunlarik eta patroiak osatzen dute 12 metroko luzera duen ontzi bakoitza. Taldekako kirola da, beraz, baina ez dute denek lan bera egiten. Bakoitzak bere eginkizuna du, eta guztiek arraunean egin behar badute ere, taldeko lan horri esker egiten du aurrera traineruak. Itsasoa bare, tripulazioaren indarra, itsas-lasterra eta zein kaletik arraun egin behar duten izaten dira ardura nagusiak; itsaso zakarrean, aldiz, beste aldagarri ugari daude. Arraunkera motzagoa edo luzeagoa den, olatuekin dantzan abilezia gehien nori izango, ur-lasterra, ontziak hartzen duen norabidea, eta abar luzea. Arraunean bezala, bizitzan ere indarra eta abilezia behar dira baldintzak onetan zein txarretan norabide egokia jarraitu eta zintzo baina apal ziboga atzean utzi eta azken luzea egiteko. Eta aurranean bezala, bizitzan, arraunlarik edo patroia izan, aldamenekoan laguntza beharrezkoa da 3 edo 1,5 itsas mila hoiek egiteko, helmugan aurrena, bigarrena, azkenaurrekoa edo azkena izan, arraunean ez bezala, bizitza bera baita irabazi daitekeen banderarik preziatuena. Lagunok, egin arraun, eta batez ere gozatu! Astindu bandera!

Euskal Herri guztiko txistulariak batuko dira Arraten

Euskal Herriko Txistulari Elkarteak 1927an Arraten sortu zala 90 urte bete dira eta, hori ospatzeko, bixarko egitarau zabala preparatu dabe. Euskal Herri osotik etorritako txistularia hartuko dabe parte, baita Eibarko Usartza txistulari taldeko kidiak be. Txistularixen ohiturari jarraituta, eguna dianarekin hasiko dabe. Txistulari guztiak Untzagan alkartuko dira goizeko 09:00etan eta handik abiatuko dira kalejiran. Ondoren, 10:00etan, ezohiko batzar orokorra egingo dabe Coliseo antzokian, alkartiaren estatutuak barritzeko, eta billeria amaituta, 11:00etan, Arratera igoko dira. Han hamaiketakua egin eta gero, 12:15etan mezia izango da eta, hori amaittu eta jarraian, 13:15etan txistularixen esku dantza egingo da zelaian. Segidan, 13:30xetan, kontzertua emongo dabe zelaian bertan eta 14:30xak aldera Kantabria jatetxian bazkarixa egingo dabe. Eguna biribiltzeko, arratsaldeko 18:00etan Donostiako udalaren txistulari taldeak umorezko kontzertua emongo dau Arrateko elizan eta, agurtu baiño lehen, 18:45etatik aurrera erromerixa egingo da.



1927xan Euskal Herriko Txistulari Elkartia eratzeke lehen batzarra Arraten egin zan.



200 urte betetzen dittu gaur "Hijas de Santa Maria de la Providencia", Aldatze ikastetxiaren titulartasuna dakan kongregaziñuak. Lehelengo mojak 1904. urtian aillegau ziran Eibarrera eta Aldatzera 1914. urtian. Ikastetxian 45 bihargin eta 570 ikasle dagoz gaur egun.

Urriaren 7xan ospatuko dogu Sagardo Eguna

Ohitturiari jarraituta urriko lehen zapatuak hartuko dau Sagardo Eguna aurten be. 24. ediziñua izango danak 13 sagardotegixetako sagardaua ekarriko desku Eibarrera: Alorrene, Altzuetan, Barkaiztegi, Begiristain, Egi-Luze, Gartziategi, Gaztañaga, Gurutzeta, Isastegi, Olaizola, Sarasola eta Zapiain. Jaixak egun osua hartuko dau Untzagan, eguadiako 12:00xetan hasitta 14:30xak arte eta arratsaldian 19:00etatik sagardaua amaittu arte. Tolaretik urtendako mustioa probatzeko aukerarik ez da faltako aurten be, eta Baztan inguruko sagardogilliak erabiltzen eben kirikoketa nola erabiltzen eben erakutsiko dabe. Hori guztia txalapartariaren eta Marisol Arri-lagaren soñujolien doiñuak lagunduta. Barrittasun moduan, aurten, oka-joko moduko bat egongo da umiendako eta, horrez gain, Sagardoaren Etxeak lagata, sagardauaren hiztegixa biltzen daben panelak be ikusgai egongo dira arboletatik zintziilik. Eguadietan, 12:00xetan txotx egittiare-



Eguaztenian aurkeztu eben Anartz Mitxelenak eta Ekaitz Olaizolak aurtengo Sagardo Eguna.

kin batera hasiko da jaixa eta orduantxe hasiko dira tiketak saltzen. 6 euroren truke zapixa, pin-txua eta nahi beste sagardo edateko edalontzixa eskuratuko dira.

San Wenzeslao jaixak ospatuko dittue bixar

Wenzeslao Orbea kalekuak bixar ospatuko dittue jaixak, kaliaren izena dakan San Wenzeslao eskindutako eguna atzo izan zan eta. Goizetik hasiko dira ekitaldixak, 11:00ak aldera zabalduko daben auzokidien artisautza erakusketia zabalziazekin batera. Ordu erdi geruago hasiko dira ume eta nagusixendako preparau dittuen jokuak: sokatira, kaskara-batzia, globuak... Eguardixan, barriz, txorizuarekin pintxo-potia egingo dabe eta ondoren, 14:00xetan izango da patata-tortilla txapelketia; parte hartzen dabena tortillak eginda eruan biharko dittue eta epai-mahaikueri 13:00erako aurkeztu. Txapelketia amaittu eta gero, auzokuak bazkarixa egingo dabe eta musikia, barriz, Duo Amanecer bikotiak eskinduko dau. Arratsaldian, 16:00etatik 19:00etara umiendako puzgarrixak egongo dira eta tartian, 18:30xak aldera txokolate-jana eukiko dabe ume eta nagusixak. 19:30xetan txikiteuan ibilli eta pintxuak jateko tartia hartuko dabe eta orduantxe hasiko dira helduendako trontza txapelketia eta umiendako igel-toka txapelketia. Eta, jaixak agurtzeko, 20:00etatik aurrera eta gaberdirarte musikia eukiko dabe, DJ Sergiren eskutik.



XIX. Jardunaldi Mikologikuak ate joka

Eibarko Klub Deportibua urtero antolatzen dittuan Jardunaldi Mikologikuak urriaren 7 eta 8ko asteburuan izango badira be, jardunaldi horretako lehen ekitaldixa Deporren bertan izango da datorren asteko eguenian, hillaren 5ian, 19:30xetan Aranzadi Zientzia Elkarteko Jose Antonio Bereziartuak "Lista roja de hongos amenazados" izenburupian gaztelaraz eskinduko daben hitzaldixarekin.



autuan



AMETSA-REN 3. URTEURRENA

Bixa eguardixan hasi eta gaberdira arte hainbat ekitaldi berezirekin ospatuko dabe Ametsa tabernaren 3. urteurrena: kontzertuak, Lambretta motorren erakusketia, 80. hamarkadako musikia, Versionarios taldiaren kontzertua, Juanma Cano eta Santi DJ-k girotutako musikia...



LGTBI FESTA

Bixar gabian lehen LGTBI festa ospatuko da, Gehitu Eibar-en eskutik. Jaixa Calbeton kaleko Chic tabernan izango da, 23:00etatik aurrera. Antolatu dittuenen artian, bestiak beste karaokia, Delirio abeslarixaren eta DJ Josebaren saiuk dagoz.



	U	R	R	I	A		
						1	
2	3	4	5	6	7	8	
9	10	11	12	13	14	15	
16	17	18	19	20	21	22	
23	24	25	26	27	28	29	
30	31						

						1	2	3
4	5	6	7	8	9	10		
11	12	13	14	15	16	17		
18	19	20	21	22	23	24		
25	26	27	28	29	30	31		



						A	Z	A	R	O	A
			1	2	3	4	5				
6	7	8	9	10	11	12					
13	14	15	16	17	18	19					
20	21	22	23	24	25	26					
27	28	29	30								

2017ko urria-abendua

kultur eskaintza

Barixakuero ...eta kitto! astekaria
 Hilero Txikitto! umeen aldizkaria
 Astero Berbetan mintzapraktika taldeak
 Itzulpenak eta diseinu-lanak



Euskara Elkarte

Urkizu pasealekua 11, solairuartea
 20600 Eibar (Gipuzkoa)
 Tel: 943 20 09 18
 elkarte@etakitto.eus
 www.etakitto.eus

Primeran ibilli zan jendia Legarreko jaixetan

Eguraldixa lagun, primeran ospatu zittuen Legarreko jaixak aurreko asteburuan. Barixaku arratsaldian hasi ziran Arrajolape jai batzordiak antolatutako jarduerak: umiendako preparau zittuen jolasak, tortilla txapelketia, 100 bat lagun batu zittuan afarixa, zumba saia eta musikia izan ziran protagonista jaixetako lehen egunian. Eta zapatuan Legarreko II. Kronoeskillararekin ekin zetsen egunari: Igor Atxak marka guztiak hautsi zittuan, proba miñutu bakarrian amaittu eban eta. Ondoren, trikitilari eta buruhaundixak lagundutako

pintxo-potia egin eben eta Bizimina alkartiaren eskutik egindako bazkarixan 150 lagun inguruk hartu eban parte. Bazkalostia, barriz, DJ Arnok girotu eban, Antxo eta Pantxa euren ikuskizuna eskintzeko ordua aillegau zan arte. Jarraixan banatu eben txokolatiak pozik laga zittuan ume zein nagusixak eta, jaixak agurtu baiño lehen, Mugi Panderoa taldiaren eskutik egindako erromerixan eta gabian Oso Basatis eta The Rockos taldiak emondako konzertuetan nahi beste dantza egitteko aukeria egon zan.



Musikak be tokixa izan zeban. Maialen Belaustegi

Kataluñiako erreferendumari babesa azaltzeko ekitaldixak

Aurreko barixakuan eibartar mordua alkatu ziran Untzagan, Eibarko EH Bilduk

deittuta Kataluñiarekin alkartasuna azaltzeko egin zan konzentraziñuan. Domeka-

rako antolatu daben erreferendumari babesa azaltzeko ekitaldixa izan zan eta, horren harira Espaiñiako gobernuak zelan diharduan jokutzen ikusitta, aurreko astian gurian egin zan ekitaldirako deixarekin bat egin eban Eibarko Ahal Dugu alderdixak be. Kataluñiako galdeketa dala eta, Gure Esku Dagok deittuta, bixar be erreferendumaren aldeko manifestaziñua egingo da Bilbon. "Demokrazia / Erabakitze askatasuna" goiburuaekin. Erabagitzeko eskubidiaren aldeko manifestaziñua arratsaldeko 17:30etan abiatuko da La Casillatik eta Eibartik hara juateko autobusa antolatu dabe Eibarko Gure Esku Dago taldekuak. Autobusa 16:00etan urtengo da Ego Gaiñetik.



URRIA

Urriak 3, asteartea:

Harixa Emoten literatur tertulia. Miren Gorrotategiren "33 ezkil". 19:00etan Portalean.

Urriak 7, larunbata:

Sagardo Eguna. Egun osoko jai Untzagan. 13 sagardotegitako sagardoa. 12:00-14:30 eta 19:00-amaitu arte.



Urriak 18, asteazkena:

Pate dastaketa, Eskularen eskutik. Izen-ematea urriaren 4tik aurrera, 3€.



Urriak 20, ostirala:

Gurasoak Berbetan, "Barixakuak Jolasian": Kutxatxoak egiteko tailerra. 17:30ean ...etakitto!n.

AZAROA

Azaroak 7, asteartea:

Harixa Emoten literatur tertulia. Kirmen Uriberen "Elkarrekin esnatzeko ordua". 19:00etan Portalean.

Azaroak 11 eta 12, larunbata eta igandea:

Pirritx, Porrotx eta Mari Motots-en ikuskizuna Unibertsitate Laboralean.



Azaroak 12, igandea:

Ongi Etorri Berbetan-era programaren barruan: Bizilagunak bazkaria.



Azaroak 17, ostirala:

Gurasoak Berbetan, "Barixakuak Jolasian": Koloretako gatz-poteak. 17:30ean ...etakitto!n.

Azaroak 18, larunbata:

Sosola baserrira txangoa (Berbetan). Azaroak 21, asteartea: Munduko janariaren tailerra. Portaleko sukaldean (Berbetan).

Azaroak 27-28, astelehen eta asteartea:

Sendabelarren inguruko ikastaroa. 19:00etatik 20:30etara ...etakitto!n (Berbetan).

ABENDUA

Abenduak 2, larunbata:

Sosola baserrira txangoa (Berbetan).

Abenduak 3, igandea:

Euskararen Eguna.

Abenduak 5, asteartea:

Harixa Emoten literatur tertulia. Xabier Etxanizen "Waterloo-n galdutakoak". 19:00etan Portalean.

Abenduak 12, asteartea:

Ardo apardunen dastaketa. 19:00etatik aurrera ...etakitto!n. Izen-ematea abenduaren Tetik aurrera, 3€.

Abenduak 15, ostirala:

Gurasoak Berbetan, "Barixakuak Jolasian": Antzerkia. 17:30ean ...etakitto!n.

Abenduak 31, igandea:

Kirolkitto! kirol-sari banaketa. 12:00etan Coliseoan.





Takeko Nakano

Bideo-foruma eta taillar eskintza zabala prestau dau Pagatxak

Pagatxa emakumien alkartiak hainbat jarduera preparau ditu ikasturte barrirako. Izaskun Rodríguez Elkorok gidatuko daben zine-foruma urriaren 6xan abiatuko da, "Figuras ocultas" (Zuz: Theodore Melfik) pelikularekin. Portaleko areto nagusixan izango da, 19:00etan, eta betiko moduan nahi daben guztiendako zabalik egingo da. Horrekin batera, aurtan be "Emakumeen istorioak" ziklua eskinduko dabe. Kasu honetan Leticia Martínez-Alcocer arduratuko da saiuekin eta lehelengua astelehenian egingo dabe, Portaleko ikastaro gelan, 18:30etatik 20:00etara: "Takeko Nakano: la guerrera samurai" aztertuko dabe. Hillaren 23rako aukeratu daben personajia, barriz, Juana de Arco da. Bideo-forumetatik kanpora, urriaren 4an hasiko daben idazteko taillarra hilleroko egingo da, lehen eguaztenian, 17:00etatik 19:00etara Portalean. Eta urriaren 18tik aurrera, hil baktzeko hirugarren eguaztenian, 17:30etatik 19:00etara. Horretan parte hartzeko interesa dakanak 687368907 telefonora deittu edo Andretexeara jua leike, Jassone Osororen "Greta" liburua jasotzera. Literaturaren inguruko saiuak be Leticia Martínez-Alcocerrek gidatuko ditu. Eta Eskar Larrinagak emongo daben "Armonia eta tratu onak" taillarraren aurkezpena urriaren 10ian egingo dabe, 17:00etan Portalean. Antolatutako jarduera guztiak duan dira.

Energia Berriztagarrien Ingeniaritza Graduko 3. promozioñokuak diplomak jaso zittuen

Aurreko asteko eguenian egin zan UPV/EHUko Gipuzkoako Ingeniaritza Eskolako 2016/2017 ikasturtian Eibarren titulua lortu daben ikaslien graduaziño ekitaldixa Hezkuntza Esparruko aretuan. Energia Berriztagarrien Ingeniaritza Graduko 3. promozioñoko tituluduneri diplomak banatzeko ekitaldixan, bestiak beste, Nekane Balluerka UPV/EHUko errektorea, Miren Artaraz Eusko Jaurilaritzako Unibertsidade Politika eta Koordinaziñoako zuzen-

darixa eta Miguel de los Toyos alkatia egon ziran. Titulua hartu eben ikaslietako 34 mugikortasun programetan parte hartzen ibilli dira. Beste 16 ikasle, barriz, Erasmus programarekin Alemania, Belgika, Polonia, Errumania eta Portugalen egon dira ikasten. Beste 17 ikasle Amerika Latina programan hartu dabe parte Txile, Argentina, Kolonia eta Uruguain. Eta ikaslietako bat AEBn egon da, "Beste Norakoak" programarekin.



Diplomak banatzeko ekitaldixan ikasliekin batera ordezkari politikuak izan ziran.

Javier Hernando irakasle eta antzezlia hil da

Kixka antzerki taldeko kidea zan Javier Hernando aurreko asteko eguenian hil zan, bapatian, 58 urterekin. Berez irakaslia izan arren, 25 urte baiño gehixago emon zittuan




umiendako antzerkixa egitten, Karmele Etxeberria emaztiarekin batera. Oin dala pare bat urte Eibarko Antzerki Jardunaldixetan bixak alkarrekin ikusteko aukeria egon zan, "Bola-luma" izenburuko antzezlarian, bixen artian egindako txotxongi-luekin.

LUIS JESUS RAMOS AIZPURUA (2017-IX-14)



Berriro elkarrekin izango garen arte iraungo duten besarkada eta musuak zuretzako. MAITE ZAITUGU.

ETXEKUAK





Domekan 10:00etatik 14:00etara Untzagan egingo den azoka ekologikoak emango dio hasiera Debabarreneko VI. Aste Ekologikoari. Modu ekologikoan zaindutako eta artisau-lanketarekin ekoiztutako produktuak salduko dira bertan eta, ekintzen artean, Sosola baserrikoek ogi tailerra eskainiko dute 10:00etatik 14:00etara. Urriaren 7an, bestetik, Ekolapiko Eguna ospatuko da Urkizun. Tailerrak, antzezlanak eta umeentzako jolasak eskainiko dira egun osoan zehar herritarrei Ekolapiko proiektuaren berri emateko.

XABIER LEJARZEGI: (ENEEKeko kontseiluko zuzendaria):

“Jatordua ez da umeak elikatzeko tartea bakarrik”

– *Azaletik, zer da Ekolapiko?*

2006. urte amaieran martxan hasi zen proiektua da, bertako baserrietan ekoiztutako elikagaiekin elikadura ekologikoa eta osasuntsua ikaste-txeetako jangeletan txertatzeko. Haurren eta lurraren osasuna ere ditu ardatz, elikadura ekologikoa sustatu eta praktikara eramanez. Hiru ardatz nagusi ditu proiektuak: osasuna eta hezkuntza, ingurumena eta landa garapena.

– *Zenbat ikastetxetan dago martxan proiektua?*

2006an, Donostiako Udalarekin elkarlanean, hango hiru haurreskolatan jarri zen martxan. Usurbil, Beasain, Hernani, Oiartzun, Erreterria eta Ibarrrako hainbat ikastetxetara hedatu zen gero. Denen balorazioa oso positiboa da orokorrean, bai elikagaien kalitatearengatik, baita baserritarrek dituzten harremanengatik ere. Proiektua Gipuzkoako ikaste-txeetan aurkeztu bazen ere, izan duen bilakaerari erreparatuta Euskadi mailan zabaltzeko asmoa dugu.

– *Eibarko ikastetxeren batek ekimenarekin bat egin du?*

Eibarko ikastetxe batek interresa erakutsi du, beraz, herrian egingo den ekintza honen bitartez espero dugu animatzea eta behintzat proba fasean hastea. ‘Ekolapiko gida’ osatu dugu eta bere helburua ikaste-txeei laguntzea da, eskaintzen duten jantoki-zerbitzuan elikagai ekologikoekin lan egiteko eman behar dituzten urratsak ezagutu ditzaten.

– *Nolako produktu eta menuak eskaintzen ditu Ekolapikok?*

Bi baldintza nagusi betetzen dituzte menuak. Batetik, menu orekatuak izaten dira, nutrizio-irizpideetara egokitzen direnak. Eta bestetik, inguruko baserrietan ekoiztutako elikagaiak dituzte oinarri, sasoiko elikagai ekologikoak erabiliz. OMEren (Osasunaren Munduko Erakundea) piramidean oinarritzen da Ekolapiko menuak diseinatzeko orduan. Elikaduraz gain, jarduera fisikoak gure osasunaren duen garrantziarengatik,

NAOS (Nutrizioa, Jarduera Fisikoa, Obesitate Prebentzioa) estrategia ere kontutan hartzen dugu.

– *Menu horiek prestatzeko ere jarraibideak zehazten dira edo hori sukaldari bakoitzaren esku dago?*

Proiektuaren baldintzak betetzen direla ziurtatzeko zehazten dira menuak. Horregatik, proiektu honetan sukaldariaren papera funtsezkoa da. Egitasmoa aurrera emateko, aldeko jarrera garbia azaldu eta prest egon beharko dute eguneroko jardueran aldaketak egiteko. Izan ere, inguruko baserritarrek hornitutako elikagaiak sukaldatzen direnez, produktu freskoek presentzia handia izango dute. Kalitatearen aldetik aurrera pauso handia da, baina produktu freskoarekin lan egiteak esfortzu eta inplikazio handiagoa suposatzen du. Hala ere, esfortzu horren emaitzak oso positiboak izaten ari dira.

– *EKO aurrizkia duten produktuak, orokorrean, garestiagoak izaten dira. Ekolapiko*

ere garestiago da beste zerbitzuekin alderatuz?

Menuan produktu ekologikoak txertatzeak dakarren gainkostua ezagutzeko, eskolak duen menua aztertu eta bertan elikagai ekologikoak txertatuz gero izango lukeen kostua kalkulatu da. Hainbat faktorearen arabera da gainkostua, baina Ekolapikok izandako esperientzien arabera, 5/6 euro eguneko/umeko kuota-rekin menuaren eta langileen kostua ordaindu daitezkeela estimatzen da. Hala ere, gainkostua murrizten saiatzen gara, betiere NAOS estrategia-ren gomendioak jarraituz.

– *Zein onura dakartza Ekolapikok beste menu konbentzionalekin alderatuz?*

Jatordua ez da umeak elikatzeko tartea bakarrik. Irakaskuntzako hezkuntza-zerbitzu osagarria izatea du helburu proiektuak, elikadura eta osasunaren sentibilizazio ekintzen bitartez. Horretarako, bertako eta sasoiko elikagaien kontsumoa bultzatzen da ingurumena errespetatuz.

Zero Kilometroaren Hilabetea Hyundai Oarso Car-en



Tucson GDI 131 cv
16.900 €

i20 Fresh MPI 85 cv
8.900 €



i30 Klass TGDI 120 cv
13.500 €

OARSO CAR
HYUNDAI KONTZESIONARIO OFIZIAL BERRIA GIPUZKOARAKO
WWW.OARSOCAR.COM

ELGOIBAR

Olaso Polig., 17

943 74 14 80

OIARTZUN

Lintzirin Poligonoa, 1
943 49 48 30

BEASAIN

Errepide Nazionala, 1
943 80 40 54

IRUN

Juan Thalamas, 43
943 63 97 69

HYUNDAI



Hyundai Gama i30 5 ate: CO₂ emisioak (g/Km): 94-169. Kontsumo mistoa (l/100 Km): 3,6-7,3.
Hyundai Tucson Gama: CO₂ emisioak (g/Km): 119-175. Kontsumo mistoa (l/100 Km): 4,6-7,5.
Kopuru mugatua, stock-a amaitu arteko eskaintza. Finantziazioari lotuta. Baldintzak galdetu: oarsocar.com

SAGARDO EGUNA 2017

Urriak **7**
zapatua

EIBARREN
Untzagan

12:00-14:30
19:00-amaitu arte

**SAGARDO-
GILEAK**

Alorrenea
Altzueta
Barkaiztegi
Begiristain
Egi-Luze
Gartziategi
Gaztañaga
Gurutzeta
Isastegi
Olaizola
Sarasola
Zapiain
Zelaia

antolatzailea:
eta
kitto!
Euskara Elkarte

laguntzailea:



Maialen Lado eta Olatz Mandiola (Aginaga auzokoak)

“Aginagako jaietan umeen jolasak antolatzen ditugu eta edozertan laguntzen dugu”

Aginaga auzokoak dira Maialen Lado Gisasola (16 urte) eta Olatz Mandiola (18 urte). Betidanik ilusio handiarekin hartu dute parte euren auzoko jaietan, eta azken urteetan umeen jolasak antolatzeko ardura hartu dute. Gogo handiz dihardute eta jaietan auzora joaten diren haurrak primeran pasatzea da gazte hauen asmoa. Gaur, barixakua, ospatuko da San Miguel eguna Aginagan eta asteburu osoan izango dira ekitaldiak (EGITARAU 28. ORRIALDEAN).



– Aginaga auzokoak zarete biak. Zelan hartzen duzue parte San Miguel jaietan?

Umeen jolasak antolatzen eta prestatzen ditugu. Txokolate-jana banatzen dugu eta afarian ere laguntzen dugu. Azkenean denak auzokoak gara eta edozertan lagundu eta ekitaldietan parte hartzen dugu (bazkaria, afaria, erromeria, briska txapelketa, Gorritiren abereak, giza-proba...). Dena dela, gehienbat umeen jolasak antolatzen ibiltzen gara. Bertan daukagunarekin, tokia aprobetxatuz eta hurrek nahi dutena kontuan hartua, gauza desberdinak egiten ditugu: aulkien jolasa, kaskara batzea, arraultzaren jolasa... Azken bi urteetan ginkana prestatzen hasi gara, bi talde sortzen ditugu eta eliza inguruan ibiltzen gara.

– Nongoak dira jolasetan parte hartzen duten umeak?

Jaietara urtero etortzen direnak izaten dira, inguruko auzoetako umeak gehienbat. Markinatik eta Eibartik ere etortzen dira batzuk.

– Zelan hasi zineten parte hartzen?

Auzoan elkarte bat dago eta guztiek laguntzen dute jaietan. Hala ere, antolaketaren ardura txandakatuz joaten da elkarteko kideen artean. Orain dela hiru urte edo, gure gura-

soei egokitu zitzaizkion hasi ginen gu jolasak antolatzen. Beti egon dira, nagusiek antolatuta, baina gutxi egiten ziren. Orain, umeentzako jardueri garrantzi handiagoa ematen saiatzen ari gara. Azken finean umeek pisu handia daukate (gazteak ia ez dira egoten), eta guregana etortzen diren umei gauza erakargarriak eskaintzea inportantea deritzogu. Helburua eurak ondo pasatzea da, eta, horregatik, daukaten gogoaren arabera inprobisatu egiten dugu. Gu txikiak ginenean ilusio handiarekin bizi izan genituen jaiak, eta umeen artean ilusio hori mantendu nahi dugu. Ez dugu nahi hori galtzea.

– Biak ikasleak zarete (Maialenek La Salle-Azitaian dihardu eta Olatz ingeniarietza hasi da ikasten Arrasaten), eta oraindik ez duzue gidatzen. Zelan konpontzen zarete egunero gora ta behera ibiltzeko?

Alde txarra distantzia da, apurtxo bat urruti dago eta beti kotxearen menpe egon behar gara. Gurasoak, osaba-izebak, auzokoak... aukera guztiak aprobetxatzen ditugu jaisteko eta igotzeko. Dena dela, abantaila asko ditu baserrian biziak: bistak, lasaitasuna, beste askatasun bat daukazu... Nahiago dugu baserrian biziak, ohituta gaude eta ez dauka gu aspertzeko astirik.



NAFARROA OINEZ

bikin bat in

Nafarroa Oinez 2017
Lesaka

urriaren 15ean

AUTOBUS



ZERBITZUA

IRTEERA

9€

BUELTA

09:00etan Ego-Gainetik

19:00etan Lesakatik

J.A. Mogel Ikastolako Gurasoen Elkarte / ...eta kitto! Euskara Elkarte

Gazterobotikak ehun bat gazte batu zituen zapatuan Astelena frontoian

Ederto ibili ziren aurreko zapatuan Astelena frontoian egin zen Gazterobotika Euskadiko lehen hezkuntza txapelketan parte hartzera animatu ziren 100 bat neska-mutilak. Eibarren lehen aldiz antolatu duten txapelketarekin gazteak zientzia eta teknologiaren arloan murgiltzea nahi dute antolatzailleek. Goiz osoan zehar robotikari lotutako proba ezberdinetan lehiatzeko aukera izan zuten eta, horrekin batera, teknologia berriak bertatik bertara ezagutzeko tartea ere izan zuten. Gazterobotika egitasmoa Debabarreneko udal arduradunen eskutik sortu zen ekainean eta, asteburuan egin den topaketaren aurretik, hainbat tailer teknologiko eskaini dituzte eskualdeko herrie-

tan horrelako gaietan aditua den Doplay enpresakoek. Lehen edizio honek izan duen erantzuna ikusita, ekimenak jarraipena izango duela aurreratu dute arduradunek.



Idazle gazteak Arrateko jaietan

laz "deskubritu" zuten eta, orduko hartan bikain pasatu zutenez, aurten ere Arrateko jaietan izan ziren Aubixan aste osoa igaro zuen ikasle taldekoek. Irakaskuntza Ertainetako Urruzuno Literatur Lehiaketako 14 irabazle eta Koldo Mitxelena Lehiaketako beste hiru, June Oleaga monitoreaekin, Arraten amaitu zuten astea: "Afaldu ordurako iritsi ginen eta aurten, gainera, Kantabriako bertso-afarian egoteko aukera ere izan genuen". Aurreko bost egunetan literatura eta musika tailerrekin gozatu zuten, "beste era askotako irteerekin batera".

JAVI Hernando Gurruchaga

Ezinezkoa da utzi diguzun hutsunea betetzea,
ezta eman diguzun laguntasuna
eta zoriontasuna gainditzea ere.
Ez zaitugu inoiz ahaztuko,
ez zaitugu inoiz galduko
gure bihotz barrenean
eramango zaitugu betiko.



EIBARKO
LA SALLE
HEZKUNTZA
ELKARTEAK

Eibarren, 2017ko irailaren 21ean



Urtero sasoi honetan Donostiako Zinemaldixak pelikula barrixen inguruan murgiltzera animatzen gaittu eta, Jaialdixa oin dala 30 bat urte bezala Eibarren ez bada bizi be (orduan Zinemaldixarekin lotutako pelikulak eskintzen ziran herriko aretuetan), hainbat eibartar izan dittugu protagonista azken aldixan. Iazko ediziñuan Juan Palacios eibartarraren "Pedaló" dokumentalak Irizar Euskal Zinemarako Sarixa irabazi eban eta oinguan herriko bost emakumeren testigantza dogu "Volar" filmian.



Donostiako Zinemaldixan aurkeztu dan "Volar"-en Eibarko emakumiak dira protagonista.

Eibartarrak pantaila haundixari lotuta

Emakunde bultzatutako proiektua da martitzenian Donostiako Zinemaldixaren barruan estreñatutako "Volar" Bertha Gaztelumendi Irungo kazetarixak zuzendutako lanak. Genero-biolentzia jasan-dako bederatzi emakume bildu dittu pelikula horrek, lehen pertsonan berba egitten dabenak, euren esperientzia kontatziatz gain, aurrera egitteko ibilbidia be gerturatzen deskuenak. Euretako bost Eibarkuak dira,



Bertha Gaztelumendik zuzendu dau "Volar".

"Arrate Ramirez Ermuan bizi bada be". Débora Saavedra, Raquel Solórzano, Nerea del Campo eta Letizia Martínez-Alcocer dira beste laurak. Azken honek kontatzen deskuenez, "urtebete da amaittu genduala. Abuztutik urriaren lehen asteraiño irauñ eban lan horrek eta, ingurutik urruntzeko bazarri baten egindako bi asteburutik kanpo, banakako alkarrizketak dira muiña".

Hasieran ez zeken pelikularik buruan: "Pentsatu be ez halakorik; prozesu baten ondorixua izan da azkenian pelikulan bihurtzia". Eurak jasandakua ezagutaratziatz gain, horri guztiorri aurre zelan egin detsen errekonozimendua be bada dokumentala. Horregaittik ikusten dau Emakunde berak be gizartiari mesede egin leixola errealdade horretaz jabetziak. "Gure barneko esperientziatik abiatuta, eta bizi izandako gogortasuna partekatuz, danok biolentzia horren aurka egitteko prestatuago" egingo garala uste dabe. Bestela, gizartiak horren guztiaren on-

dorixuak ez dittualako ikusten: "Askok ez dakixe benetan tratu txarrak jasatia zer dan".

Horrez gain, "aurreiritziak eta mitoak desmuntatzeko holako audiobisualak dakan indarrian" siñesten dabe protagonistak. Ez dabe ezkututzen, aldi berian, "emozionantia" izan zala eurentzat, "prozesu sakona" bizi izan zebela proiektuan guztiz murgilduta. Pelikularen billa juan ez baziran be, pozik dagoz ezustiarekin: "Ez gara aktoriak, baiña bai billuzten garala. Hasieran gu geu pantailan ikustiak halako inpresioño itzela emoten desku". Martínez-Alcocerrek diñuaneez, "hirutan ikusi dot eta bakotxian gauza barrixak aurkittu dittut, bai nere kasuan eta bai bestienian be".

Bederatzi protagonistak adin eta lanbide desbardiñekuak dira, baiña danak konpartitzen dabe "biolentzia horrerri aurre egittia eta jasandakuari bestelako zentzu bat emotia", batez be gizartiaren mesederako. Estreñaldia eta gero beste bi pase proiektatu



Bista Eder, 11
Gosariak
Eguneko menua
Pintxo bereziak
Entsaladak
Razioak
Hanburgesak...
943 47 77 79



San Juan, 1 Tel. 943 20 33 29

dira jaialdixan eta datorren astian Bilbon, Gasteizen eta Donostian emongo da "Volar". Bilbokua martitzenian izango da eta sarrrerak agortuta dagoz eta "beste hainbat udaletatik be badagoz eskaerak".

Dantzatik zinera, jauzi berezixa

Donostiako Zinemaldiko sail ofizialian parte hartzen daberen "Handia" Jon Garaio eta Aitor Arregi zuzendarixen euskal pelikulan be badira gure herriko protagonistak. Kezka dantza taldekuak dira; baiña, eurak diñoskue, "asko konturatu be ez dira egingo han gagozela". Aspaldi egindako rodajia da, ezkontza bateko bazkalostekua. Oier Araolazak gogoratzen dabenez, "ez genkixan zer gertatuko zan grabatutakuarekin. Hamendik familia osuak juan giñan. Urten urtetzen dogu, baiña geure burua errekonozitiarekin nahikua dogu". Halanda be, esperientzia



Kezka dantza taldeko hainbat kide "aktore" lanetan jardun dabe azken aldixan.

politta izan zala diñue: "Ikasteko balio deskuna. 1846. urteko ezkontza zan, benetan zelan janzten ziran jakittek be gatxa".

Bestelakua da Kezkakuak Telmo Esnalen "Dantza" pelikulan izango daberen protagonismua. Euskal dantzen sinbolo eta metaforak oiñarri hartzen dittu filme horrek, "gizakiaren eboluziñua erakusten daberen fikziñozko pelikula musikala" izatiaz gain. Maitte Arroitauregi "Mursego" eibartarrak be hartzen dau parte proiektuan, musika arluan Pascal Gaignerekin batera.

Kezkakuak gogoratzen dabenez, "bada eszena bat 200 dantzari inguru batzen dittuana eta horrelakuetan Kezkako 20 bat izango gara bertan. Bada urtarrillian Arantzazun grabatukua, neguan, eta ordu txi-

kietan gaiñera, neska askorekin egindakua". Prozesuak luze jo dau, finanziaziñua lortzeko oin dala hiru urte grabatu zalako lehelengo eszena. Aurten rodajia egin dabe batez be eta, "neguan egin biharreko eszena bat edo bi falta badira be", %80 inguru grabauta dake eta Donostiako Zinemaldiko "Glocal in progress" sekziñuan egongo da. Atal hori produktore, banatzaile eta programatzailleri eskintzen jakue.

Telmo Esnal zuzendarixa asko egon da Eibarren azken aldixan eta, Araolazak gogoratzen deskunez, "azken Euskal Jaixan gurekin dantzatu zeban eta Arratietan ezpata dantzak ikusten be egon zan". Ainhoa Larrañaga, Eider Agirrebeña. Luken Aranburu, Josu Garate... pantaila haundixaren zain!



Telmo Esnal "Dantza" filmaren zuzendarixak harreman estua dauka Kezkako dantzariarekin. Eibarko azken Euskal Jaixetan eta Arratietan be gure artian izan zan.

DEBABARRENEKO VI. ASTE EKOLOGIKOA 2017

URRIAK 1, igandea

EIBARKO VI. AZOKA EKOLOGIKOA
 Untzaga plaza - 10:00etatik 14:00etara

LANDAKETA TAILERRA - ENEEK
 ASKARI OSASUNTUAK - AZA TA PORRUA ELKARTEA
 GARITIK OGIRA TAILER-ERAKUSKETA - SOSOLA BASERRIA

URRIAK 3, asteartea

DONIENE BERRI BASERRIRA BISITA - ITZIAR BARATZAZAINTZA EKOLOGIKOA

18:00etatik 20:30etara

Izen ematea: Biolur 943 76 14 47. Doan

URRIAK 5, osteguna

BASAILUN BASERRIRA BISITA - MUTRIKU FRUTAZAINTZA ETA BARATZAZAINTZA EKOLOGIKOA

18:00etatik 20:30etara

Izen ematea: Biolur 943 76 14 47. Doan

URRIAK 7, larunbata

EKOLAPIKO EGUNA
 Urkizu pasealekua

ANTOLATZAILEAK:



LAGUNTZAILEAK:



URRIAK 1, 3, 5 eta 7



osasun DOSIAK

XXI. mendeko pandemia berria



iokin elortza
BOTIKARIA

"Egoera larria da. Ez badiogu aurre egiten posible da ebakuntza txiki batengatik jendea hiltzea". Hitz horiek Tedros Adhanom-ek esan ditu, Osasunaren Mundu Erakundeko (OME) zuzendari nagusiak, eta antibiotikoekiko erresistentziari buruz ari da.

Datuak hor daude: 2013. urtean antibiotikoekiko erresistentziak munduan 700.000 heriotza eragin zituen, eta 2050. urterako 10.000.000 izatea aurreikusten da. Eta heriotza eragingo ez duten kasuetan, erresistentzia hauek, gaixoaldiak eta ospitaleko egonaldiak luzatu eta gastu ekonomikoa asko haundituko dute.

Antibiotikoak nekazaritza eta abeltzaintzan oso erabiliak badira ere, gaur gizakion gaixotasunak osatzeko nola erabiltzen ditugun aztertuko dugu.

Urteak daramatzagu entzuten antibiotikoen tratamendua ez amaitzeak sortzen dituztela erresistentziak, alegia, gaixotasunaren sintomak amaitu eta antibiotikoen tratamendua amaitu gabe hartzei uzten diogunean sortzen direla.

Baina ikerketa berri batzuk teoria hau zalantzan jarri dute, eta diote tratamendu luze hauek izan daitezkeela erresistentzia hauen errudun, tratamendu laburragoek eragin berdina eta erresisten-



tzia sorrera txikiagoak izan dezaketela defendatuz.

Edozein kasutan, eta gauzak horrela, hauek dira beti jarraitu beharreko gomendioak: ez hartu inoiz antibiotikorik zure kabuz eta egin beti kasu medikuak agindutakoari. Osasuna!

Berriro irailean

Berriro ere iraileko egunerokotasunean buru-belarri sartuta gaude. Eskolara buelta, lanera buelta. ikasketetara buelta...

Agian oporretan ohikoa baino denbora gehiago pasatu dugu gure bikotekidearekin. Izan ere, agian eguneko 24 orduak pasa ditugu bere aldamenean, jende gehiago edo gutxiagorekin, baina biok elkarrekin. Askorentzako opari bat izan daitekeen egoera hau (mugarik gabe elkarrekin egoteko astia izatea, eta, gainera, aisialdi tartea izatea), beste batzuentzat suzko froga izan daiteke. Errazagoa da krisialdi bati aurre egitea bikoteak egunerokotasunean elkarrekin egoteko denbora gutxi baldin badauka. Zerbait gaizki badoa, oso konplikatua izan daiteke egunero hainbeste ordu elkarrekin egotea.

Elkarrekin denbora gehiago egoteaz gain, jarduerak antolatzea behar dira, nora joan eta zer egin adostu, agian tartean haurrak daude...



arantza
alvarez
SEXOLOGOA

Norbaitekin ondo gaudenean hori guztia erakargarria da erabat, baina txarto gaudenean nekagarria izan daiteke. Sarritan, bikotea krisian dagoenean, jarrera gero eta individualistagoa bilakatzen da eta bakoitzak bere onura besterik ez du bilatzen. Hau da, bakoitzak berea egiten du eta ez du ezer egiten bestearentzat atsegingarri izateko. Pazientzia amaitu egiten da eta baita konplazientzia ere.

Arrazoi horiengatik bikote asko aurretik baino krisi sakonagoarekin buelta daitezke oporretatik. Harremana probatu egiten da eta beti ez da ondo ateratzen.

Garrantzitsua normalean daukagun bizimodua da, eta ez oporraldi labor batean daukaguna. Baina, aldi berean, egia da egun gutxi horietan ikus daitezkeela harreman batean gertatzen eta hondatzen ari denaren seinaleak.

Oporraldian asko eztabaidatzen baldin bada, zer gertatuko da eguneroko eraldian? Oporretatik itzultzea gure harremanaren gaineko gogoeta egiteko unea izan daiteke.

FILMAK: "Turist" ("Fuerza Mayor") edo "By the Sea" (Frente al Mar")

sex KONTUAK





Gure betaurreko guztiak bilduma berrietakoak dira

R.P.S. 175/15 I.L.G.

INGURUAN DITUZUN DETAILA TXIKIENEKIN GOZATU

Lente progresiboen belaunaldi berria dator

MULTIOPTICAS EIBAR-ek lente progresiboen belaunaldi berria dakarkigu, gaur egungo presbitezat, X Belaunaldiko kideentzat. Belaunaldi hori 1965. eta 1980. urteen artean jaiotakoek osatzen dute, aurreko belaunaldietakoak baino erritmo azkarragoa daramate, hiperkonektatutako munduan bizi dira, ikusmen-ohitura berriak dituzte, gailu elektronikoeekin egiten dute lan eta hainbat zeregin egiten dituzte aldi berean.

Orain arte, lente progresiboen diseinuan, gertuko ikusmenerako begirada-norabide baterako plano bakarra hartzen zen kontuan eta, ondorioz, erabilzaileek burua sarrago mugitu behar izaten zuten zeregin batetik bestera pasatzeko. Orain, Varilux-eko gama altuko lente berriekin, gertuko ikusmen-premia guztiak kontuan hartzen ditugu. Ikusmen-bolumen handia sortzen dugu, presbitei, gertuko ikusmen dinamikoa eskaintzeko; bai besotik eskura dagoen ikusmen eremuaren barruan (40 eta 70 zm artea), baita mugimenduan ere.

Teknologia berri honen xehetasunak argitzeko Multiópticas Eibar-eko profesionalengana jo dugu, eibartarron ikusmen-osasunean adituak dira-eta.

Zein da Varilux-eko lente progresiboen gama berriak eskaintzen digun berrikuntza nagusia?

Izugarritzko aldaketa da. Orain arte, presbita askok, eta bereziki aktiboek,

MULTIOPTICAS EIBAR-en VARILUX-eko gama altuko lente berriak gomendatzen ditugu %100eko bermearekin.

Izan ere, probatu dituzten BEZERO GUZTIAK poz-pozik agertu dira eta igarri duten alde handia nabarmendu digute.



ikusmen-mugak izaten zituzten distantzia ertain eta gertukoetan, baina progresibo berri hauekin hobekuntza handia igartzen dute distantzia horietan.

Nola lortzen da hori?

Essilor-ek, azken 5 urteotan, lan handia egin du bai ikerketan bai erabil-

tzaileekin, eta berrikuntza hau lan horren ondorioa da. 30 patente erabili dira teknologia berritzailea duten lenterak egiteko: XTEND izenekoak arintasuna eskaintzen du gertuko ikusmenean; NANOPTIX-ek oreka mugimenduan eta SYNCHROEYES-ek ikusmen-angelu zabala.

Bidebarrieta, 2 • Tel.: 943 20 05 22 • EIBAR

www.multiópticassgipuzkoa.com



MULTIOPTICAS
lehen a zerbitzu optikoetan

Kalean ekin dio ikasturteari

berbetan egitasmoak



Kalean eta jai-giroan. Horrela hasi du ikasturtea mintzapraktikako programak. Berbetan Jaialdia hartu zuen Untzagak aurreko barixakuan. Eguraldia lagun ederto pasa zuten hara joandako haur eta gaztetxoek, bai puzgarrietan eta baita eskulan-tailerretan ere. Jaialdiarekin Berbetan programaren berri eman nahi izan die ...eta kitto!-k herritarrei. Ahozko euskera hobetu nahi dutenei horretarako aukera eskaintzen die egitasmoak eta eskatzen den konpromisoa txikia da, astean behin ordubete besterik ez. Taldeetan presiorik gabe eta giro informal eta naturalean egiten dute berba euskeraz, hitz egiteko gaitasuna hobetu eta beldurrak eta lotsak gainditzen joateko. Taldeak osatzeko, euskera hobetzea nahi dutenez gain, euskaldunak edo euskeraz ondo hitz egiten dutenak ere behar izaten dira. Izena urte osoan eman daiteke (943200918, www.etakitto.eus, elkartea@etakitto.eus) eta doakoa da.



SABIN MUGICA LETURIONDO

(2017ko irailaren 14an hil zen, 69 urterekin)

*Familiaren izenean, **ESKERRIK BEROENA** gure nahigabeen lagundu diguzuen guztioi eta hileta-elizkizunera joan zinetenoi.*





Amaña-Legarreko jaialdian **Egogain Gerontologikoen** laguntza izan genuen



Urkiko jaialdian Ceba tabernako **Juankar eta Rosa** ibili ziren laguntzen.

Auzoetan ere **Berbetan!**



Untzagako jaialdiak auzoetan izan zuen jarraipena. Egitasmoaren berri emateko asmoarekin martitzenean Urkiko auzoan izan ziren ...eta kitto!ko dinamizatzaileak eta gurasoek azalpenak entzuten zituzten bitartean umeek jolasetan eta txokolatadan hartu zuten parte. Eguaztenean Legarre eta Amaña auzoetako bizilagunen txanda izan zen, Legarreko frontoian antolatu zen Berbetan Jaialdia, eta gaur, barixakua, Urkizuko parkean izango da jaia, iturriaren aldean, arratsaldeko 17:30etik aurrera. Nahi duenak har dezake parte eta doakoa izango da.

ISI RODRIGUEZ NIETOren

1. urteurrena (2016-IX-30)



“Zu joan zara, baina zureganako gure maitasuna ez. Ez ditugu inoiz ahaztuko zuk izandako ilusioa eta bizipoza”



EIBARKO TXIRRINDULARI ELKARTEA

Helburuak eta eskaintako zerbitzuak

Gaur egun izen horrekin ezagutzen badugu ere, Club Ciclista G.A.C izenarekin jaio zen 1926. urtean, eta handik urtebetera, 1927an, hartu zuen gaur egungo izena. Bizikletaren erabilera bultzatu eta Eibarko eta inguruko txirrindulariei babesa emateko helburuarekin sortu zen elkarte, eta gaur egun ere helburu berarekin dihardu lanean. Horrez gainera, kirola, kultura, gastronomia eta gizartearekin lotura duten hainbat ekitaldi ere antolatzen ditu urtean zehar.

Ekintza nagusiak

- **Kirol arloan:** Txirrindulari-lasterketak kadete, jubenil, elite eta 23 urtez azpikoentzat; martxa zikloturistak; Bizikleta Eguna (herrikoia).
- **Kultur arloan:** Udaberriko kontzertua Cielito Musika Bandarekin batera; Argazki Lehiaketa; Argazki Erakusketa eta aldizkaria urtean behin.
- **Gastronomia arloan:** Txistorraren Eguna.
- **Gizarte arloan:** Hitzaldiak eta errekonozimenduak eta omenaldiak.

Helbidea: Pagaegi, 3 behea
Telefonoa: 943 20 34 80
E-maila: cce@clubciclistaeibarres.org
Harremanetarako: Angel Lopez presidentea
 (669 21 39 40)
 Joxema Guerra idazkaria
 (656 73 45 66)



Gaur egun klubaren martxa daraman talde osoa Eibarko Bizikleta plazan.

EIBARKO ARMAGILE ELKARTEA

Helburuak eta eskaintako zerbitzuak

50 urte igaro dira Eibarko enpresa armagileek indarrak batu eta elkarte bat sortzea erabaki zutenetik. Anitzak dira Eibarko armagile elkartearen zereginak. Armagintza sektorea nazio zein nazioarte mailako erakundeetan defendatzeaz gain, bazkideen defentsa juridikoaz eta aholkularitzaz ere arduratzen da. Bestalde, elkarteko bazkideen baimenak eta lizentziak gestionatzen dituzte. Armagintza sektorearentzat garrantzitsuak diren nazioarte mailako azoken antolaketan parte hartzen dute, eta ehiza mundurako garrantzitsuak diren ekitaldi nagusienetan egoten dira.

Ekintza nagusiak

- 1995. urtetik nazioarteko azoketan Espainiako pabilioia gestionatzen dute, eta horri esker elkarteko bazkideek abantaila nabarmenak izaten dituzte, esate baterako, lekua aukeratzeko orduan. Azpimarratzekoak dira AEBko *Shot Show* azoka eta Alemaniako *IWA*.
- Elkarteak antolatzen dituen merkataritza misioei esker, enpresa parte-hartzaileak mundu osoan zehar merkatu berrietara ailegatu dira, eta esan daiteke bazkideen ekoizpenaren %75 kanpoko merkatuetan saltzen dela.
- Elkartearen bazkideen poposamenak kontuan hartzen dituzte jarduera esportatzailea handitzeko xedea duten ekintzak antolatzeko orduan.

Helbidea: Azitain industrialdea, 2-J
Telefonoa: 943 20 84 93
e-maila: info@a-armera.com
webgunea: www.a-armera.com
Harremanetarako: Marta Gomez



Marta Gomez Eibarko armagile elkarteko gerentea, elkartearen 50. urteurrena ospatzeko irailaren 13an Armagintzaren Museoa egindako ekitaldian.

Eibar FTko nesken lehen taldeak hirutik hiru irabazi ditu liga hasteko

Gasteizen Alavesi 3-4 irabazita, eibartarrak 2. Mailako euren multzoko lidergoan daude, Athletic eta Logroñorekin berdinduta, orain arte jokatuakoen partiduetan plenoa eginda. Ibarrolak hack-trick-a egin zuen, hiru golekin, eta Estibalizek lortu zuen laugarrena, 88. minutuan. Hurrengo partiduan Logroño izango dute aurkari Unben: maila handiko neurketa, beraz, Xuban Peñak prestatzen duen taldearentzat.

Bigarren taldeak, bestalde, bina berdindu zuen Anaitasunarekin probintziako Erregional mailako ligaren hasieran eta hurrengo asteburuan Mutrikun jokatu du.

Urki jokalar berrien bila

Urki Kirol Klubak, bestalde, dei egin die 2004an edota 2005ean jaiota foballean jokatuta nahi duten neska guztiei eguaztenetan eta barixakuetan, 15:30etik 17:00etara, lpu-



ruako anexoan egiten dituzten entrenamendu saioetatik partatzeko edo, bestela, 678-

395039 telefono zenbakira deitzeko (Cristina edo Andrea-rengatik galdetu dezakete).



Somos Eibarrek indartsu, baina minduta, hasi du denboraldia

Eskubaloiko gure herriko lehen taldea Ligako lehen partiduetan nagusitu da eta, debutean Elgoibarko Sanlori irabazi bazion Ipuruan, azken asteburuan 26-32 ondo gailendu zitzaion Ucin Usurbili azken honen kantxan. Bi garaipen horiekin eibartarrak 1. Maila Nazionaleko euren multzoko sailkapeneko goi-goian daude, Ereintza eta Huarterekin berdinduta. Hala ere, Usurbilen jokatutako partiduan lau jokalarik

min hartu zuten eta baja izango dira (batzuk besteak baino denbora gehiagorako) hainbat jardunaldietarako: Ballesteros atezainak eta Uriarte albokoak hilabete eta erdirako izan dezakete eta De Diego pibota eta Zabala erdikoa diagnostikoaren zain daude. Aurreko denboraldietan indartsu jardun izan duen San Antonio talde nafarra izango dute aurkari Somos Eibarkoek Ipuruan hirugarren jardunaldian.

Unben galdutakoa berreskuratu zuen Eibar Rugby Taldeak Vigon

Etekin handiko bidaiak egiten dihardute azken denboraldietan Eibar Rugbyko ordezkariak Galiziako lurretara eta oraingoan ez da bestelakorik izan. Avia Eibarkoek ondo nagusitu zitzaizkien azken asteburuan Vigoko Unibertsitatekoiei (24-32) eta ligako lehen jardunaldian Unben, UBU-Colina Clinic-aren aurka, erakutsitako joko onak pareko emaitza ekarri zuen oraingo-

an. Bost puntu dituzte orain eibartarrek; ondo baino hobeto etorriko zaizkie asteburu honetan Zarautz Babyauto Ohorezko B Mailako multzo horretako liderra Unben hartzeko. Kostaldeko taldearen eta eibartarren artean urteetako lehia dago, eta azken denboraldietan zarautzarren alde egin du (igoerako promozioa jokatu zuten azken denboraldian).



Burgosen aurka Unben liga hasi zuen Eibarko taldea. Ramon Beitia



Hyundaiaren laguntza-autoa txirrinduzaleentzat

Errepidean babes gutxien dutenen aldeko ekimena abiatu du Hyundai Oarso Car-ek, "aldi berean auto gidariak kontzientziazteko ere balioko duena". Hori dela-eta, auto kontzesionarioak laguntza-autoa (Hyundai i30cv) eskaintzen die txirrindularitza klubei, "asteburu guztietako irteeretan segurtasun neurri modura".

Hyundai Motor Españak zabalduakoa #JuntosEnElAsfalto ekimenean Trafiko Zuzendaritza Nagusiak, Mapfre Fundazioak, Istripuei Stop eta AESLEME elkarteak eta Txirrindulari Profesionales Elkarteak hartzen dute parte, "autogidariak eta txirrindulariak errepidean elkarrekin bizi daitezkeela erakusteko".

Erregional mailako futbol taldeak sasoiko azaldu dira denboraldi hasieran

Batez ere, 1. Erregionaleko bosgarren multzoan jokatzen duten Eibartarrak eta Urki. Lehen jardunaldiko euren partiduak erraz irabazita, multzoaren sailkapeneko gorenean kokatu ziren Eibarko talde biak eta, bigarrenen jokatuta, eurak dira puntu guztiak batu dituzten talde bakarrak. Eibartarrak 1-3 irabazi zion Aloña Mendiri Oñatin eta Urki 4-2 gailendu zitzaion Unben jokatutako neurketan Elgoibarri (2-2).

Gorengoen edo Preferente Mailan jokatzen duen Eibar Urkok, bestalde, 1-0 irabazi zion Unben Mondragoni eta, modu horretan, denboraldiko lehen hiru puntuak bereganatu zituen, ligako lehen jardunaldian Bergaran 2-1 galdu eta gero. Eibar FT-ko ordezkariak ez ditu aurkari errazak izango denboraldi honetan: Elgoibarko Handi, Mondragon bera, Zumaiako... aurreko denboraldietan Erregionaleko Oherko Mailan jokatuta dutenak.



Iñaki Alzibar

Asola Berrikoek indartsu ekin diote Euskal Herriko hiru-txirlo txapelketari

Josean Blanco eibarra da txapelketako lehen liderra, Soraluzeako San Andreseko Iñaki Burunzarekin berdinduta, biak ere sei txirlo botata. Txirlo bat gutxiagorekin konformatu behar izan zuten Asola Berriko Bittor Astigarraga eta Juan Luis Rodriguez, San Andreseko Jose Antonio Nuñez eta Elgetako Sebas Aranzabal. Guztira 43 bolarik hartu zuten parte Azpeitiko Floreagako bolatokia jokatutako XVIII. Euskal Herriko hiru-txirlo bola txapelketako lehen jardunaldian. Bigarren tiraldia urriaren 7an izango da Barinagan.



Josean Blanco irabazlea, eskuman.

21 mendizalek egin zuten Ortzaize-Heleta ibilbidea

Aurreko asteburuan, eguraldi bikaina lagun zutela, 21 lagun izan ziren Iparraldeko Ortzaize eta Heletaren arteko mendi ibilbidea egiten. Klub Deportiboak antolatutako ibilaldiak 14 kilometro izan zituen eta, guztira, hiru mendigain zapaldu zituzten, tartean 813 metroko Haltzamendi. Behin Heletara helduta, bertan berreskuratu zituzten "galdutako" indar guztiak mahai baten bueltan. **Argazkian, "Beti Jaten" taldekoak.**



Iñigo Gisasolak 11. aldiz irabazi du eskualdeko ehiza txapelketa

Aurreko domekan Zambranen jokatutako Debabarreneko ehiza txapelata bereganatu zuen berriro ere Iñigo Gisasola eibartarrak. Oraingoa 11. aldiz izan da garaile eta Dianakoak, zazpi eper lortuta, Arkaitz Egaña



eta Carlos Conde Elgoibarko ehiztari handiei hartu zien aurre senior mailako txapelketan. Emakumezkoetan Leire Egaña nagusitu zen eta beteranoeetan Mauro mendarorak aurrea hartu zion Jose Mari Egañari. Gipuzkoako txapelketa izango dute aipatutakoek hurrengo erronka, urriaren 8an.

Herri-lasterketa urriaren 28an

Asier Cuevas herri-lasterketaren beste edizio bat jokatuko da urriaren azken zapatuan, hilaren 28an, arratsaldeko 18:00etan hasita. "Atletismoa denontzat" sustatzeko asmoa dute antolatzaileek eta izena emateko aukera dago www.sailkapenak.com helbidean (10 euro) eta eskuorria bete eta Deporrera eramán daiteke eguaztenetan.



Erritmikako Ipuruak ezin hobeto hasi du denboraldia: lehen torneora joandako hiru taldeak podiumean

Senior mailako taldeak urrezkoa irabazi zuen, infantil mailakoak zilarrezkoa eta oinarrizko kadeteak brontzezkoa. Etekin handiko bidaia egin zuten Ipuruako gimnastek Logroñora, bertako Hiriko Saria jokatzeko, tartean Espainiako txapelketei begira izan dezaketen aurkari askoren parte-hartzearekin. Domeka goizean kadete mailako taldeak bost zintekin jardun zuen, aparato horrekin egiten zuten estreinaldian, eta lortutako hirugarren postuak animo bereziak eskaini zizkion boskoteari *"euren lana perfektionatzeko izango duten bi hilabeteko etapari begira"*.

Arratsaldean hartu zuten parte Ipuruako beste talde biek eta, infantiletan, hiru pelotekin eta bi pare mazekin egindako ariketaren amaieran bigarren postua eskuratu zuten. Eta senior mailan,



Nahia Arguiz, Jennifer Hernandez, Elene Varela, Elena Sudupe, Malen Txurruka eta Alaitz Aranbarrik osatutako seikoteak podiumaren gorenera igo zuen eta denboraldiko lehenengo urrea lortu zuten hiru pelota eta soka birekin egindako ariketan. Bihar izango dute hurrengo hitzordua aipatutako hiru klubak Donostian jokatuko den Izar Leku torneoan.



Foball Eskolan parte hartzeko plazak ia agortuta

Eibar FTK antolatzen duen Foball Eskolak luzatu du izena emateko epea eta oraindik badago aukera hainbat multzotan parte hartzeko. 2007. urtean jaiotakoena beteta dagoen moduan, 2008an jaiotako mutilendako (eguenetan izango dute eskola, 17:00etatik 18:30era), 2009an jaiotako mutilendako (eguztinetan, 17:00etatik 18:30era) eta 2006tik 2009ra jaiotako neskendako (azken hauek barixakuetan, 17:00etatik 18:30era) multzoetan izena emateko aukera zabalik dago www.sdeibar.com/futboleskola helbidean.

Gaur amaituko da Xake Eskolan izena emateko epea

Gaur arratsaldean, 18:30etik 20:30era, Klub Deportivo boko bulegoetan eman dezakete izena Xake Eskolan ikasturtea egiteko asmoa dutenek. Eta baita e-postaz nahi izanez gero: xakea@deporteibar.com helbidean. Aurreko ikasturtean bezala, bi talde osatuko dituzte: Berriak, Hastapenekoak eta 1. mailako Jarraipenekoak klaseak jasoko dituzte barixakuetan 17:30etik 18:30era, eta Nagusiak eta 2. mailako Jarraipenekoak egun berean eta jarraian, 18:30etik 19:30era.



www.kolorlan.com 667 54 89 16

KOLORLAN
PINTURA LANAK S.L.

PUBLI RESA
objeto publicitario

Armagin, 3-5 beheak

- merchandising
- serigrafia
- lanerako erropa

publiresa@publiresa.com 943 701 497 / 615 799 419

Funeraria Ehortzetxe Mugica

EIBAR
Beilatokia
Funeuskadi Eibar:
Otaola, 27

ELGOIBAR
Beilatokia:
SIGMA Industrialdea
(Olasoko hilerriaren ondoan)

Bulegoa Eibarko erdialdean
Bulegoa Bidebarrieta, 20

24 orduko zerbitzu iraunkorra
943 20 19 51 www.funeuskadi.com

Euskadiko Lehen Ehortze Taldea **GRUPO Funeuskadi**



Txalan Txalan egitasmoak atek ireki dizkie hizkuntza, kultura, jatorri eta ohitura guztietako eibartarrei berriz ere. Eibarko bizilagunen arteko harremana sustatzeko helburuarekin sortutako ekimena da. Udaberrian egin zen proba pilotuaren balorazio positiboa jaso eta gero, ikasturte osoa iraungo duen edizioa aurkeztu du ...eta kitto! Euskara Elkarteak. Urriaren 5era arte eman daiteke izena ongietorri@etakitto.com helbidera idatzita, 943200918 telefonora deituta edo ...eta kitto!-ren egoitzan (Urkizu 11, solairuartea).

MIREN BARANGUAN: (Txalan Txalan-en koordinatzailea):

“Beste inguru berri bat ezagutzeko aukera ematen dizu Txalan Txalan-ek”

– Txalan Txalan-en izena eman nahi duenak baldintzaren bat bete behar du?

Edozeinek hartu dezake parte egitasmoan. Hizkuntzak praktikatu eta herriko beste kulturak ezagutzeko interesa duten guztientzako da.

– Euskara jakin behar da parte hartzeko?

Ez. Euskara praktikatu edo euskarara hurbiltzea da helburua. Hizkuntza trukaketa hainbat modutan eman daiteke. Adibidez, nik ingelesa dakit eta nire bikote linguistikorekin ingelesa praktikatzen dut, baina ez dakit euskaraz, nahiz eta euskarara hurbildu nahi dudana. Beraz, gaztelera erabiliko dut, horren bitartez euskal kultura eta hizkuntzara gerturatzeko.

– Nola osatzen dira bikoteak?

Batetik, parte hartzaileen ordu-tegiak aintzat hartzen ditugu, logistika kontuagatik. Eta bestetik, praktikatu nahi dituzten hizkuntzak eta ezagutu nahi dituzten kulturak zeintzuk diren ere kontuan hartzen ditugu. Adina eta zaletasunak ere kontuan izaten ditugu: mendira joatea, kafea hartzea, zinea, pasiatzea, etab. laz, adibidez, hizkuntzak

praktikatu nahi zituztenak zeuden eta atzerrik Eibarrera etorri den bere adineko jendea ezagutu nahi zuten beste batzuk, orain arte euren inguruan aukerarik izan ez dutelako. Askotan hori da zailena, zure errutinarren barruan zaudelako, zure lagun taldearekin, eroso. Egitasmo honek beste inguru berri bat ezagutzeko aukera ematen dizu, eta beste hizkuntza batzuk praktikatu dezakezu jende berria ezagutzuz.

– Norbaiti lotsa ematen badio edo lagun batekin joan nahi badu, bikoteak beharrean hirukote edo laukoteak sortu ahal dira?

Bikote linguistikoak bezala izendatu ditugu, baina proba pilotua egin genuenean jende gehiagorekin ekintzak egiteko proposamena irten zen. Lotsatia bazara edo isiluneak badaude, dinamikoagoa izateko. Orduan, edizio honetan, bi hilabetetik behin, Berbetan egitasmoaren barruan egingo diren munduko janari tailerretan parte hartu ahal izango dute Txalan Txalan-ekoek. Bestetik, Bizilagunak ekimena egingo da azaroan, eta bikote linguistikoak urriaren hasiko direnez, beste jende batekin

bazkaldu eta harremana egiteko aitzakia bezala erabili nahi dugu. Txalan Txalan-ekoak Berbetan-eko ekintzetara etortzea nahi dugu, ingurua handitzeko. Ekintza osagarriak, tailerrak, irteerak... egin nahi ditugu hilabetero. Bestela ere, ni ere hor egoten naiz hasieran eta, dena den, ekimena irekia da eta lagun edo ezagunak batu daitezke bileretara.

– Nolakoak izaten dira bikote linguistikoen arteko topaketak?

Ordu eta erdiko topaketak izatea dago zehaztuta, baina bikoteen arabera izango da iraupena. Hasieran pertsona bakoitzarekin elkartzeko naiz eta profilen arabera bikoteak osatzen ditugu. Gero, bikoteen lehen topaketara ni ere joaten naiz, aurkezpenak egin, eurekin egon eta harremana martxan jartzeko. Batzuk euren kabuz moldatzen dira lehen momentutik. Azken finean, lagun batzuen arteko harremanean egiten diren gauzak egin ditzakete. Bestela ere, edozein momentutan nirekin harremanetan jarri daitezke dinamika edo gai ezberdinei buruz proposamenak jasotzeko.



LOKALA SALGAI EDO ERRENTAN

Taberna eta jatetxe moduan prestatuta, baina aukera askorekin (elkarte gastronomikoak, bulegoak, negozioak, almazenak, ...)

636 90 93 30

ITZULPEN

**ERA GUZTIETAKO TESTUAK
ITZULTZEN DITUGU,
euskaratik gaztelarrera,
gaztelerratik euskarara,
eta ingelesetik euskarara.**

ZERBITZUA

elkartea@etakitto.com

gremioen gida



943-206776



ANTENAK

BALATZ

Instalakuntzak eta konponketak
antena

Bidebarrieta, 37
balatz@euskalnet.net

Tfnoa. 943 20 05 08
Faxa. 943 20 04 94

943 530 356
688 674 242
669 934 964

electricidad
iparelek s.l.

INSTALAZIOAK ETA
MANTENIMENDUA

iparelek@gmail.com iparelek@iparelek.com

IGELTSEROAK

Eraikuntza
Erreformak
Igeltseritza



Jose Maria Irazabal, S.L.

Zure etxea, bulegoa, tailerra...
aldatzen laguntzen dizugu
etorkizun hobez
goza dezazun

Azitain Industrialdea, 3 H Pabilioia
Tfnoa. 943-120108
www.irazabal.net

Ego Gain, 2 - Bac

Tfnoa. 943 12 73 50
www.trinmer.com



TELEKOMUNIKAZIOAN
PROFESIONALAK



TELEKOMUNIKAZIOAK
ELEKTRIZITATEA
ENERGIA BERRITAGARRIAK

610 532 922

24 orduko
urgentziak

ARKITEKTOAK

olatz etxeberría martinez ARKITEKTOA
olatz@arquitectura-ei.com Tel. 649978832

estudio etxeberría

arkitektura, hirigintza eta periferiazioak
erailin eta obretako kudeaketa teknikoak

Mekola, 7 - behea
Tel/Fax 943 70 21 12 www.arquitectura-ei.com



ERAIKINEN MANTENUA

I.T.E. INSPECCION
TECNICA DE
EDIFICIOS



ERAKINEN
IKUSKAPEN
TEKNIKOA

E.I.T.

info@ajtoficina.com tlf. 943 80 18 30
AJT zihurtasuna s.l.p.
Barrena, 6 - behea ezk.

KRISTALAK

ACHA Kristaldegia

TAILERRA: ERREKATXU, 3an

KRISTAL ARLOKO SOLUZIOAK

info@cristaleriaacha.com ERAKUSKETA
eta faxa: 943 203 903 Arikixaneko Zubian

AROTZAK



aluminiozko eta PVC-ko aroztegia
baita toloak, gortinak, estoreak etabar

Txonta, 30 - 1. eta behea
Tfnoak: 943 12 13 67 www.ulmar.net

ERAKUSKETA
EIBARREN, Urkizu 26an (Tel. 943 12 74 01)

ERREFORMAK

**ESTUDIOS
ARRILLAGA**

PROIEKTUAK - ERREFORMAK
GREMIOEN KOORDINAZIOA
ROSARIO, 15 -ELGOIBAR-
605 713 168 943 744 019

PINTURAK

baglietto
PINTOREAK

Zoru mota guztiak
Pinturak
Dekorazioa
Errebal, 21
Tel/Fax: 943 201 922 bagliettoeibar@kaixo.com

ELEKTRIZITATEA

egoluz
ELEKTRIZITATEA S.L.

Ego Gain, 9 ac
ego.luz@hotmail.com

677 51 24 62
630 95 73 45
943 20 06 97

GARBIKETAK

**Limpieza
Multiservicio
Eibar**

Superficie
mota guztiak
garbiketa eta
mantenimendu zerbitzua



Tfnoa. 943 031 082
Mobila 688 609 171
www.multiservicioeibar.com Barrena, 21-1.F

MALVAR
PINTURAS

Sostoa, 16 ac behea
Tfnoa. eta Faxa. 943 700 900
Mobila. 656 784 396

TREJO
GARBIKETAK S.L.

Tel: 943-752557
Faxa: 943-752556
16 Postakutxatila - Soraluze

Garbiketa eta
mantenimendua



TERESA CASTRO
(komikilaria)

– Zein da Ana, komikiko protagonista?

Orain dela 20 urte sortutako pertsonaia, 2013an Gehituren aldizkarian agertzen hasi zena. Bere abenturak kontatzen dituen emakume lesbiana da eta, orokorrean, aldizkariaren gaiekin zerikusia duten gauzak kontatzen ditu: sexu-transmisio bidezko infekzioetatik babestea, bisexualitatea, transexualitatea, errespetatzen eta onartzen ez zaituen munduarekin bat etortzeko beharra... Anak umorez hartzen ditu gauzak eta alai bizi da orokorrean. Batzuetan haur edo nerabe moduan kontatzen ditu istorioak, eta beste batzuetan heldu baten erara.

– Ana sortzeko prozesu bat jarraitu zenuen edo bapatean bururatu zitzaizun?

Irten behar zelako irten zitzaidan, irakurri nahi nituen istorioak kontatu nahi nituelako. Komiki gutxi dago lesbianen inguruan, bat ere ez dagoela ez esatearren. Proiek-

“Irakurri nahi nituen istorioak kontatu nahi nituelako sortu nuen ‘L.S.B., Ana’”

Gehituren aldizkarian aurki dezakegu Ana López Suárez Coma, hau da, ‘L.S.B., Ana’, Teresa Castro Gutierrezek sortutako komikiaren pertsonaia. Emakume lesbiana baten ikuspegitik kontatutako istorioak kontatzen ditu, umorea landuz eta denetariko gaiak jorratuz. ‘L.S.B., Anaren’ bilduma egiteko asmoa du orain autoreak eta kanpaina jarri du martxan (goteo.org/project/lbana-comic) hori gauzatu ahal izateko. Urriaren 3an proiektua azalduko du Castrok Andretxean 17:00etan.

tuaren aurkezpenean azalduko dut, baina emakumea orokorrean, eta emakume lesbiana modu zehatzean, komikietan nola irudikatu den ikusi behar da. Ana zergatik sortu den? Barrenera iritsiko zitzaidan zerbait irakurtzea faltan botatzen nuelako, irakurketa hurbil bat, identifikatuta sentiaraziko ninduen zerbait. Ipar-Amerikako lesbianen istorioak ondo daude, baina hurbilagoko zerbait bilatzen nuen, hemengo kolektiboari gertatzen zaiguna kontatzea. Orain dela 20 urte sortutako Anaren pertsonaia, Gehituren bultzadarekin, hazi egin da, kaxoitik irten da.

– ‘L.S.B., Anaren’ istorioekin bilduma egiteko proiektua daukazu martxan. Zertan datza?

Faltan botatzen dugu gai lesbikoei buruz mintzatzeko den aldizkari bat, ez bakarrik gai hori tratatzen duena, baizik eta emaku-

me lesbianen ikuspuntutik hainbat gai jorratzen dituen. Gipuzkoako Foru Aldundiari ‘L.S.B. Anaren’ istorio guztiak biltzeko proiektua aurkeztu genion, kolektiboaren (LGTBI) letra guztietan mugitzen den emakume lesbiana baten istorioak jasotzen dituen argitalpen bat.

– Sortuko duzuen materialak zein erabilerara izan dezake gizartean?

Komikia doakoa izango da eta LGTBI kultura hedatzea da helburua. Nahi duenarentzat eskuragai egongo den argitalpena izango da. Bestetik, Gehituk tailerrak egingen ditu ikastoletan, eta nerabeentzako aisialdi eta kirol taldeetan, eta interesgarria iruditu zaigu tailer horietan banatzeko laguntzako materiala edukitzea. Hori da helburu nagusia. Komikien irakurketa errazagoa da nerabeentzat, ez da liburukotea, erakargarriagoa da.

Laskurainen instrumentazioa duen “Alizia musikala” aurkeztu dute

Bergarako Musika Eskolak “Alizia musikala” lan berria aurkeztu zuten martitzenean. Lewis Carroll-en “Alice in the Wonderland” obra hartu dute oinarri bezala, baina euskarazko moldaketa berria egin dute. Ikuskizunean parte hartuko duen orkestraren instrumentazioa Jose Miguel Laskurain eibartarrak egin du eta musika arloko zuzendaritza ere bere esku izango da. Bi ordu inguru iraungo duen musikala izango da eta guztira 100 artista inguruk hartuko dute parte. Estreinaldia Bergarako udal pilotalekuan izango da, azaroaren 11n. Antolatzaileek iragarri dutenez oso ikuskizun berritzailea izango da. Gidoia zeharo aldatu dute eta Aliziaren bidaia, “gure herrian, gure garaian” hasiko dela aurreratu dute.



Amañako jaien alde zozketatuko diren foball kamiseten erakusketa

Amañako Jai Batzordeari laguntzeko zozketatuko diren foball kamiseten erakusketa hartuko du Untzagako jubilatuen etxeak azaroaren 19ra arte. Bariakuetan 19:30etik 21:30era zabalduko dute eta zapatu eta domeketan, berriz, 10:00etatik 14:00etara. Ikusgai ipini dituzten kamisetak San Andres egunean notario baten aurrean egingo den zozketan oparitu dituztenetako batzuk dira, sari moduan 180 bat kamiseta emango dituzte eta. Zozketarako txartelek 2,5 euro balio dute eta bakoitzean bi zenbaki daude. Besteak beste Koxkor, Kultura, Kontent eta Ongi Etorri tabernetan daude salgai.



Bertso saio musikatua gaur gauean

Hankamotxak Bertso Eskolak antolatuta bertso saio musikatua egingo da gaur gauean, 22:30ean Txaltxa Zelaiko auditorioan (euria egingo balu, Portaleko areto nagusian egingo litzateke saioa). Beñat Gaztelumendi, Haritz Casabala, Ane Labaka eta Arkaitz Oiartzabal "Xamoa" bertsolariak jardungo dute, Ixak Arruti (gitarra) eta Eneko Sierra (saxofoia) musikariek batera eta gai-jartzailea Jokin Bergara izango da.

Iñaki Zuloagak eleberria aurkeztuko du eguenean

Datorren asteko eguenean, 19:30ean aurkeztuko du Iñaki Zuloaga eibartarrak "Hijos del Gran Arquitecto" eleberria Portalean, areto nagusian. Egilea ekonomista, enpresarioa, politikaria eta masoia da eta, dioenez, gaztetatik sentitu zuen literaturarekiko grina eta hainbat poesia eta kontakizun labur ere idatzi zituen. Hala ere, datorren astean aurkeztuko duena bere lehen eleberria da: "Ez da intrigazko nobela, ez da abenturazkoa, ez da bidaia-liburua, ez da ezpatari edo nabigatzaileen nobela bat; baina pixka bat du horietatik guztietatik". Izan ere egileak omenaldia egin nahi izan die irakurtzean atsegina eman dioten genero horiei guztiei.



Asier Serranok poesia arloko Irun Hiria Saria irabazi du



Bi urtetik behin ematen da Kutxa Irun Hiria saria eta Asier Serrano eibartarrak orain dela bi urte irabazitakoa berretsi du oraingoan, "Denen mina da nirea" poesia bildumarekin. Emakume baten ahotsetik idazten saiatu dela esan zuen irabazleak eta, erantsi zuenez, Iñaki Aldekoak, Lourdes Otaegik eta Itxaro Bordak epaimahaikideek saritu diotena "aurreko lanen jarraipentzat hartu behar da". Poesia sail horretan euskarazko hamasei lan aurkeztu dituzte, eleberri sailean baino bi gutxiago. Azken arlo honetan Maixa Zugasti izan da irabazlea, indarkeria matxista ardatz duen lanarekin.

Bertso Paper lehiaketako epea astelehenean zabalduko da

XXIII. San Andres Bertso Paper lehiaketara lana entregatzeko epeak urriaren 2tik azaroaren 6ra arte iraungo du. Urtero bezala, aurten ere, maila bi izango ditu ...eta kitto! Euskara Elkartek antolatzen duen lehiaketak: 16 urtetik gorakoena (Euskal Herri mailan) eta 16 urtetik beherakoena (Eibarko ikasleak). Lanak ...eta kitto!-n entregatu beharko dira azaroaren 6rako. Irabazleek azaroaren 24an, barixakua, Portalean egingo den Bertso Jaialdian jasoko dituzte sariak. Jaialdian Andoni Egaña, Alaia Martin, Miren Amuriza eta Sustrai Colina bertsolariak jardungo dute, Jon Mikel Mujikaren agindupean.

Sanandresetarako kartel lehiaketa

Kultura Batzordeak aurtengo Sanandresetarako kartela aukeratzeko lehiaketa antolatu du. Gaia eta koloreak norberaren aukerakoak izango dira, baina kartelean "Sanandresak Eibarren 2017" testua azaldu beharko da derrigorrez. Lanak euskarri gogor baten gainean, edo formatu digitalizatu batean (JPG formatuan, 300 ppp-ko bereizmenarekin) aurkeztu beharko dira eta horretarako azken eguna urriaren 13a izango da. Irabazlearentzat 600 euroko saria dago. Informazio gehiagorako begiratu www.eibar.eus helbidean.

Umeendako zinea

Bihar arratsaldean, 18:00etan "Trolls" (Dreamworks) umeendako filma emango dute El Corte Inglesean (ekitaldi aretoan). Sarrera doan izango da.

Pate-dastaketa

Urriaren 18rako pate-dastaketa antolatu du ...eta kitto! Euskara Elkartek, Mungiako Eskuela etxearekin. Izen-ematea gaur hasi eta toki guztiak betetzean itxiko da (943200918 telefono zenbakira deitu edo elkartearen bulegora joan). Prezioa 3 eurokoa da.



Maite Narbaiza Azkue

Joan zirenak gure oroimenean bizi dira. ESKERRIK ASKO Maitez gogoratu zareten guztioi.





FELIX MORQUECHO

Beldurrezko pelikula

London hiria, 2017. urtean. Orain dela ehunaka urte kaleen zoruaren azpitik eraikindako tuneletan dena ilun dago. Ez da tutik ere entzuten, ezta xaguen oihu apalak. Eta bertan, hiriaren tripa gordinetan, lau balea baino pisu gehiago duen bola bat osatu da, koipez, zikinkeria, kaka bola erraldoia benetan. Zinegilea izango banintz hori bai argumentua pelikula bat egiteko, bizitza ere emango nion bola nazkagarri horri. Baina kontua ez da fikziozkoa, benetako kontua da. Hurbilago ere izan ditugu horrelako berriak, komunetatik botatzen ditugun zikinkeriak gure aurka datoz itzulian. Kasu hauek hondakinen esajerazio handiena dira baina abisu bat aldi berean. Sortzen ditugun hondakinak gero eta gehiago dira, eta komunetatik joaten direnak ez dira dezagertzen magiaren poderioz. Azken urtetan asko hitz egin ohi da hondakinen kudeaketari buruz, baina Londoneko bola erraldoi horrek guri begiratzen digu begietara. Bakoitzak bere etxeko gauzez jabetzen ez bada inor ez da etorriko konpontzera. Kontuan izan behar dugu planeta honetan bizi nahi badugu lehen pausua guk eman behar dugula. Bestela, sortzen ari garen bola hori gero eta handiago egingo zaigu, gure muturrean eztanda egin arte. Hori bai beldurrezko pelikula!

Udal kultur eskaintza zabala udazkenerako

Udazken honetarako udalak prestatu duen kultur eskaintza aurkeztu zuten eguaztenean. Betiko martxan, gurean eskainiko diren ikuskizunetan *"musika, antzerkia, dantza eta bestelako emanaldiak tartekatuko dira, ume zein helduentzat pentsatuta dauden lanetan"*. Eskaintzaren barruan, berritasunik nabarmenena Portalea kultur etxeko areto nagusiaren erabilerari lotutakoa izango da: *"Soraluzeko Gaztelupeko Hotsak-ekin elkarlanean, hainbat kontzertu emateko erabiliko dugu. Urriaren 22an 'The Godfathers' taldeak joko du, azaroan 'Sugar Daddy and the cereal killers' taldeak eta abenduan 'Julian Maeso Band'-ek, besteak beste"*. Portaleko areto nagusian 100 bat lagunentzako tokia dago eta sarreraren salmentarako bideak Coliseo antzokiarekin erabiltzen diren berberak izango dira, hau da, internet bidez www.kutxabank.es helbidean, Coliseoko leihatilan (astelehen eta barixakuetan) eta emanaldiaren aurretik Portalean, zabalduko duten txarteldegian. Coliseoan eskainiko dituztenen artean, bestalde, urriaren "Eroski paraiso" antzezlan, "Lorez lore" dantza



The Godfathers

ikuskizuna, Asier Serranoren "Linbotarrak" eta Mikel Ereñxuren kontzertua daude, besteak beste.

The Godfathers-erako sarrerak

Portaleko aretoan urriaren 22an kontzertua emango duen The Godfathers taldea ikustera joateko sarreraren aurresalmenta gaur arratsaldean, 17:30ean zabalduko dute. Sarrerak 10 euro balio du (7 euro Coliseoaren Laguna txartelarekin) eta internet bidez, www.kutxabank.es helbidean eros daiteke edo, bestela, Coliseo antzokiko leihatilan, astelehen eta barixakuetan, 17:30etik 19:30era.

"Forjarien kanta" musikala gaur Coliseoan

Gaur 20:30ean "Forjarien Kanta" musikala ikusteko aukera izango da Coliseoan. Elena Martinek zuzentzen duen Eibarko Juan Bautista Gisasola Musika Eskolako Koru Gaztearekin batera, Eibarko Musika Bandako hainbat kidek eta Musikene Euskal Herriko goi mailako musika-ikastegiko ikasleek ere hartuko dute parte ikuskizunean. Kantua, zuzeneko musika, elkarriketak eta dantzak nahasten dituen ikuskizuna da "Forjarien Kanta". Gidoia Juanma Canok idatzi du eta interpretazio arloan Maite Lorezok eta Juanma Canok berak lagundu dute. Sarrerak 8 euro balio du (6 euro Coliseoko Lagunak txartelarekin).




Urriaren 5ean itxiko da "Argazkigintza digitala" ikastarorako izen-ematea

Argazkigintza digitalaren oinarriko kontzeptuak ezagutu eta teknikak ikasi nahi dituztenentzat "Argazkigintza digitala: lehen urratsak" ikastaroa emango dute Portalean, Argazkigintza gelan, urriaren 17tik aurrera. Jose Valderrey eta Juan Antonio Palacios Klub Deportiboko Argazki Taldeko kideek emango dituzte klaseak, astelehen eta eguaztenean, 19:00etatik 21:30era (30 ordu guztira). Izen-ematea zabalik dago eta 16 urtetik gorakoek izango dute izena emateko aukera, Pegoran (urriaren 5era arte). Oraindik ez dira bete plaza guztiak. Ikastaroaren prezioa 47 eurokoa da Eibarren erroldatuta daudentzat (79 euro gainontzekoentzat).




eguraldia (EUSKALMET.NET)



Euskalgintza eta feminismoaz jardungo dute ELGOIBARREN

Uxue Alberdi bertsolari eta idazle elgoibartarrak Mari Luz Esteban antropologoari egingo dion elkarrizketarekin hasiko da urriaren 4an, "Euskalgintza eta feminismoa eskutik helduta" izeneko zikloa. "Feminismoa, euskalgintzarako gogoeta-tresna?" izenburua izango duen solasaldia Elgoibarko Kultur Etxeko hitzaldi-gelan izango da 19:00etan. Zikloa Elgoibarko Izarra Euskaltzaleon Topaguneak eta Elgoibarko Udaleko Euskara eta Berdintasun Sailek antolatuta dute elkarlanean eta euskalgintza eta feminismoa izango dira zikloaren osagai nagusiak (bien arteko harremanak, sinergiak, kezkek edo erronkak).



Gontzal Mendibilen kontzertua BERRIZEN

Bihar, zapatua, kontzertua eskainiko du Berrizen Gontzal Mendibilek, Okangoko Mikel Deunaren baselizan, 20:00etatik aurrera. 11 kantu biltzen dituen "Nire bihotzak zure begiak ditu" lan berriarekin dator abeslari bizkaitarra. Bere esanetan, gustukuen duen lana du oraingo hau, "musika eta hitzen aldetik, unean uneari egokituta". Saioak ordubeteko iraupena izango du eta dohainik izango da.

hildakoak

- Piedad Bengoa Milikua. 76 urte. 2017-IX-21.
- Javier Hernando Gurrutxaga. 58 urte. 2017-IX-21.
- Luis Fdo. Arizmendiarieta Marfull. 64 urte. 2017-IX-23.
- Francisca Ruiz Garcia. 100 urte. 2017-IX-24.
- Raul Pereda Saez. 74 urte. 2017-IX-24.

jaiotakoak

- Naomi Da Costa Valladares. 2017-IX-22.
- Eva Ferreira Arias. 2017-IX-25.

farmaziak

- Barixakua 29
EGUNEZ **Lekunberri** (Isasi, 31)
- Zapatua 30
EGUNEZ **Lafuente** (Sostoatarren, 10)
- Domeka 1
EGUNEZ **Elortza** (J. Gisasola, 18)
- Astelehena 2
EGUNEZ **Iraundegi** (Calbeton, 19)
- Martitzena 3
EGUNEZ **Mendinueta** (Urkizu, 6)
- Eguaztena 4
EGUNEZ **Azkue** (T. Etxebarria, 4)
- Eguena 5
EGUNEZ **Elortza** (J. Gisasola, 18)
- Barixakua 6
EGUNEZ **Mandiola** (S. Agustin, 3)

GAUEZ BETI - 2017 AN-
Mandiola (S. Agustin, 3)

SUDOKUA

AURREKOAREN
 EMAITZA

3	7	2	4	8	9	5	1	6
5	9	4	6	1	2	3	7	8
8	1	6	3	5	7	9	4	2
4	8	9	2	3	5	7	6	1
1	5	7	9	6	8	4	2	3
2	6	3	7	4	1	8	5	9
7	2	5	1	9	3	6	8	4
6	3	8	5	2	4	1	9	7
9	4	1	8	7	6	2	3	5

			6					
	6	3						8
9		8			5			7
		4	8		9	1		
1			7		4			2
		9	5		2	3		
7			4			2		3
5						9	6	
					6			

telefono jakingarriak

- SOS deiak.....112
- Pegora.....010
- Udaletxea.....943 70 84 00
- Portalea.....943 70 84 39
- Udalzaingoa.....943 20 15 25
- Mankomunitatea.....943 70 07 99
- Debegesa.....943 82 01 10
- KIUB.....943 20 38 43
- Epaitegia.....943 03 34 00
- Iberdrola.....901 20 20 20
- Naturgas.....902 12 34 56
- DYA Larrialdiak.....943 46 46 22
- Gurutze Gorria.....943 22 22 22
- Mendaro osp.....943 03 28 00
- Anbulategia.....943 03 25 00
- Torrekuia.....943 03 26 50
- Errepideak.....902 11 20 88
- Ertzaintza.....943 53 17 00
- Eusko Tren.....902 54 32 10
- Lurraldebus.....900 30 03 40
- Pesa.....900 12 14 00
- Taxiak.....943 20 30 71
-943 20 13 25
- Alkohol.Anon.....629 14 18 74
- Al-Anon/Alateen.....650 26 59 63

Barixakua 29

AGINAGAKO JAIK

11:00. San Miguel eguna ospatzeko meza nagusia, Usartzako txistulariekin.

12:00. Lunch-a eta umeendako jolasak.

14:00. Bazkaria, Usartzako txistulari bandarekin. Aginagan.

BERBETAN JAIK

17:30. Eskulanak eta txokolatada. Urkizun.

MUSIKALA

20:30. "Forjarien kanta", Eibarko Koru Gaztearekin. Sarrera: 8 euro (6 euro Coliseoaren Laguna txartelarekin). Coliseoan.

BERTSO SAIO MUSIKATUA

22:30. Beñat Gaztelumendi, Haritz Casabala, Ane Labaka eta Arkaitz Oiartzabal "Xamoa" bertsolariekin. Musikariak: Ixak Arruti (gitarra) eta Eneko Sierra (saxofoia). Gai-jartzailea: Jokin Bergara. Hankamotxak Bertso Eskolak antolatuta. Txaltxa Zelaiko auditorioan (euriarekin, Portalean).

Zapatua 30

TXISTULARIEN TOPAKETA

09:00. Euskal Herriko txistularien 90. urteurrena. Txistulariak Untzagan elkartu eta goiz deia joko dute kaleetan zehar.

10:00. Ezohiko Batzar Orokorra, Coliseoan.

11:00. Arraterako bidean jarriko dira.

11:30. Hamaiketakoa.

12:15. Meza Arrateko santutegian.

13:00. Txistularien Esku Dantza, Arrateko zelaian.

13:30. Txistularien kontzertua (zelaian).

14:30. Bazkaria Kantabria jatetxean.

18:00. Umorezko kontzertua, Donostiako Udalaren Txistulari Taldearen eskutik. Arrateko santutegian.

18:45. Erromeria. Arraten.

SAN WENZESLAO JAIK

10:30. Jaien hasiera.

11:00. Auzokideen artisautza erakusketa.

11:30. Ume eta nagusiendako jokoak: sokatira, kaskara-batzea, globoak... .

12:15. Pintxo-potea (txorizoa).

14:00. Patata-tortila txapelketa (13:00etarako aurkeztu beharko dira).

14:30. Duo Amanecer bikoteak girotuko duen herri-bazkaria.

16:00/19:00. Umeendako puzgarriak.

18:30. Txokolate-jana ume eta nagusientzat.

19:30. Txikiteoa eta pintxoak. Trontza txapelketa (helduentzat) eta igel-toka txapelketa (umeentzat).

20:00. Musika, DJ Sergirekin.

00:00. Jaien amaiera. Wenzeslao Orbean.

AMETSA-K 3 URTE

12:00/00:00. Ametsa tabernaren 3. urteurrena: kontzertuak, Lambretta motorren erakusketa, 80. hamarkadako musika, Versionarios taldearen kontzertua, Juanma Cano eta Santi DJ-k girotutako musika... Ametsa tabernan.

AUTOBUSA

16:00. Bilbon egingo den "Demokrazia / Erabakitzeo askatasuna" manifestaziora joateko autobusa. Ego Gainetik.

AGINAGAKO JAIK

17:00. Umeendako jolasak eta txokolate jana.

17:00. Taldeko giza-proba.

21:00. Lagunarteko afaria.

23:00. Erromeria, Kupela taldearekin. Goizaldean, txokolate jana. Aginagan.

UMEENDAKO ZINEA

18:00. "Trolls". Sarrera doan. El Corte Inglesean (ekitaldi aretoan).

OPERA

19:45. Opera, diferituan: "Otello", Londresko Royal Opera House-tik. Coliseoan (2. aretoan).

LGTBI FESTA

23:00. Gehitu Eibar-en lehen LGTBI festa.

Aurkezpena.

23:10. Karaokea.

00:00. Delirioren ikuskizuna eta patxanga.

01:00. DJ Joseba.

02:00. Delirioren ikuskizuna eta patxanga.

03:00. DJ Joseba.

04:00. Delirio, eskerrak eta agurra. Chic tabernan.

Domeka 1

AZOKA EKOLOGIKOA

10:00/14:00. Eibarko VI. Azoka Ekologikoa. Landaketa tailerrak (ENEK), askari osasuntsuak (Aza ta Porrúa), "Garitik ogira" tailer-erakusketa (Sosola baserria). Untzagan.

AGINAGAKO JAIK

11:00. Meza nagusia eta hamarretakoa.

12:30. Gorriti-ren abereak.

14:30. Paella jana, trikitilarekin.

17:00. Briska txapelketa. Jaien amaierako zozketa. Aginagan.

Astelehena 2

IKASTEN

16:00. Sendabelarren Foroa. Portalean.

BIDEO-FORUMA

18:30. Emakumeen Istorioak: "Takeko Nakano. La guerrera samurai". Formatzailea: Leticia Mtnez.-Alcocer. Pagatxa emakume elkarteak antolatuta. Portalean (ikastaro gelan).

Martitzena 3

AURKEZPENAK

17:00. "Emakume irakurle (lesbiana)k komiki bila" proiektua. Andretxean.

HARIKA EMOTEN

19:00. Euskerazko irakurketa klubaren saioa: "33 ezki" (Miren Gorrotxategi). Portalean.

Eguaztena 4

IKASTEN

09:11. Ibilaldia: Portugaleteko Pobeña. Trenaren irteera ordua, Estaziñotik (Ardantzatik 09:13ean).

Eguena 5

ODOL-EMATEA

18:30. Odola ateratzeko saioa, odol-emaileentzat. Anbulatorioan.

LIBURU AURKEZPENAK

19:30. "Hijos del gran arquitecto", Iñaki Zuloagarena. Portalean.

XIX. JARDUNALDI MIKOLOGIKOAK

19:30. "Lista roja de hongos amenazados" hitzaldia, Aranzadiko Jose Antonio Bereziartuaren eskutik, Klub Deportiboan.

KALEETAN KANTUZ

19:30. Abesbatzaren entsegua. San Andres elizako lokaletan.

MUSIKA EMANALDIA

20:00. Sergio eta Rodriguez. Estaziño tabernan.

Erakusketak

Bihar arte:

- "HEGAZTIEN MUNDUA", PEDRO PEREZ. (*El Corte Inglés*)
- ALBA SANCHIZ. (*El Ambigu*)
- VIRGINIA BARINAGA. (*Portalea jatetxea*)

Domekara arte:

- "PEDALEI ERAGITEN 50-EKO HAMARKADAN". (*Museoa*)

Urriaren 8ra arte:

- ARRATE KULTUR ELKARTEKO bazkideen lanak (*Topaleku*)

Urriaren 15era arte:

- "MITXOLETAK", FITO R. ESCUDERO. (*Portalea*)

Azaroaren 19ra arte:

- AMAÑAKO JAI BATZORDEARI LAGUNTZEKO KAMISETAK. (*Untzagako Jubilatut Etxea*)

Zure senide edo lagun bat zoriontzeko aukera ezin hobea eskaintzen dizugu. Argazki arruntaren prezioa 4 eurokoa izango da; argazki bikoitzarena, 8 euro (bazkideentzat %20ko deskontua). Argazkia eta testua eguaztena baino lehen egon beharko da ...eta kitto!-n. Hemendik aurrera zorion-agurrak etakitto.eus webgunean ere argitaratzeko aukera daukazue. Prezioak bertan kontsultatu ditzakezue.



Zorionak, MALEN, gaur 14 urte betetzen dozuz-eta. Musu haundi bat etxekuen partez.



Zorionak, NEREA!!!, bixar 8 urte egingo dozuz-eta. Millaka patxo aitaxo, amatxo eta Mikelen partez.



Zorionak, MIREN!!!, martitzenian urtiak bete zenduaz-eta. Musu haundi bat famelixaren partez. Disfrutatuz.



Zorionak, NOA, hillaen 26xan 4 urte bete zenduaz-eta. Musu bat famelixaren eta, batez be, Luka, Danel eta Anerren partez.



Zorionak, MADDI!, printzesa, gaur 5 urte betetzen dozuz-eta. Patxo haundixa famelixa guztiaren eta, batez be, Ekhiaren partez.



Zorionak, MIKEL, gaur 6 urtetxo betetzen dozuz-eta. Musu haundi bat aitaxo, amatxo eta Unairen partez.




Zorionak, KOIKILLI (gaur 4 urte) eta PELLO (bixar 3), urtiak beteko dozuez-eta. Patxo haundixa etxeko guztien eta, batez be, Artzai, Ekhi, Eñaut eta Enararen partez.



Ongi etorri gure artera, IRATI, hillaen 16ttik zaittugu hamen-eta. URKOk musu haundi bat emoten dizu gu danon partez.




Zorionak, MIKEL Lapeyra, hillaen 26xan 7 urte egin zenduaz-eta. Musu haundi bat etxekuen eta, batez be, URKOREn partez.



Zorionak, bikote!!, urtiak bete dozuez-eta: IRATik (abuztuaren 12 urte) eta EKHI-k (haraiñegun, 9). Patxo haundi bat etxekuen partez.

Zorionak, ELENE (haraiñegun 3 urte) eta JUNE (abuztuaren 26xan, 5 urte), neska haundixak egitten zoiazie-eta. Laztan haundi bat etxeko guztien partez.



zineaColiseoan

(1 ARETOAN)
30ean: 19,45, 22:30
1ean: 20:00
2an: 20:30

"Ali & Nino"


Zuzendaria: Asif Kapadia



(2 ARETOAN)
30ean: 17:00
1ean: 17:00, 20:00
2an: 20:30

"Jacques"

Zuzendaria: Jerome Salle



(ANTZOKIAN)
30ean: 17:00⁽¹⁾, 19:45, 22:30
1ean: 17:00^(1 aretoan), 20:00
2an: 20:30^(antzokian)

"Operacion Concha"

Zuzendaria: Antonio Cuadri



(ANTZOKIAN)
30ean: 17:00
1ean: 17:00

"Emoji. La película"

Zuzendaria: Anthony Leondis



i Atal honetako iragarkiak **doan** dira, etxean, lokalen, autoen eta irakaskuntzako eskaintzen kasuan izan ezik. Azken horietako PREZIOAK honakoak dira: Etxeak, lokalak eta garajeak: alokatu, 12 euro; saldu, 17 euro. Autoak eta irakaskuntzako eskaintzak: 12 euro. Doako iragarkietan, 12 hitz onartuko dira gehienez. Iragarki guztiak **etakitto.eu** webgunean ere argitaratuko dira.

1. Etxebizitza

1.1. Salgai

– Pisia salgai T. Etxebarria kalean (105 m²), 3-4 logela, egongela-jangela, sukaldea, komun bi eta balkoi bi. Bizitza sartzeko moduan. Tel. 649-258913.

1.2. Errentan

– Pisia hartuko nuke alokairuan Eibarren. Tel. 657-479770.

2. Motorra

2.1. Salgai

– Ford SMax autoa salgai. 7 plazakoa. 8 urte. 6.200 euro. Tel. 618-748143.

3. Lokalak

3.2. Errentan

– Industria-pabilioia alokagai, garabiekin, Elgoibarko Olaso poligonoan. 200 m² + 70 m² solairuaratean (7 metroko altuera). Tel. 649-258913.

– Taberna-jatetxea alokagai Urkizun. Tel. 615-784312.

– Trasteroa edo garaje itxia erosi nuke Arragueta kale inguruan. Tel. 606-088412.

– Garajea alokagai Legarre-Abontzan. Tel. 617-688311.

4. Lana

4.1. Lan bila

– Emakumea eskaintzen da nagusiak zaintzeko eta etxeko lanetarako. Goizez eta gauzez. Tel. 662-012834.

– Emakumea eskaintzen da nagusiak zaintzeko eta etxeko lanetarako. Arratsalde eta gauzez. Tel. 632-669488.

– Emakumea eskaintzen da nagusiak edo umeak zaintzeko eta garbiketarako egiteko. Tel. 631-907532.

– Umeak gaixotzen zaizkizunean zainduko dizkizut. Haur Hezkuntzako irakaslea naiz. Orduka edo egunka. Tel. 688-862668.

– Emakumea eskaintzen da umeak edo nagusiak zaintzeko eta etxeko lanak egiteko. Tel. 631-059098. Soukaina.

– Emakumea eskaintzen da nagusiak zaintzeko. Interna. Tel. 631-910326.

– Gizonezkoa eskaintzen da nagusiak zaintzeko. Baita asteburuetan ere. Tel. 632-067287.

– Neska eskaintzen da umeak edo nagusiak zaintzeko. Goizez. Tel. 677-689227.

– Emakumea eskaintzen da nagusiak zaintzeko. Arratsalde eta gauzez. Baita asteburuetan ere. Tel. 608-886701.

– Emakumea eskaintzen da nagusiak edo umeak zaintzeko eta pegorak garbitzeko. Tel. 688-959575.

– Neska arduratsua eskaintzen da nagusiak zaintzeko. Tel. 661-127328.

– Neska eskaintzen da nagusiak edo umeak zaintzeko. Interna. Tel. 602-818849.

– Emakumea eskaintzen da nagusiak edo umeak zaintzeko eta garbiketarako egiteko. Tel. 632-436462.

– Neska arduratsua eskaintzen da nagusiak edo umeak zaintzeko eta garbiketarako egiteko. Tel. 632-410561.

– Mutila eskaintzen da nagusiak zaintzeko. Gauzez eta ospitalean. Tel. 688-739589. Carlos.

– Mutila eskaintzen da nagusiak zaintzeko. Tel. 632-526844.

– Gizonezkoa eskaintzen da nagusiak zaintzeko (esperientzia), pegorak edo etxeak garbitzeko eta sukaldari-laguntzaile moduan. Tel. 631-827339.

– Neska eskaintzen nagusiak zaintzeko. Esperientzia eta erreferentziak. Tel. 610-627511.

– Emakumea eskaintzen da nagusiak zaintzeko. Tel. 633-872772.

– Emakumea eskaintzen da nagusiak zaintzeko. Tel. 662-003400.

– Gizona eskaintzen da nagusiak zaintzeko edozein ordutan. Tel. 632-551711.

– Emakumea eskaintzen da nagusiak zaintzeko arratsalde eta gauzez. Tel. 666-771151.

– Emakumea eskaintzen da nagusiak edo umeak zaintzeko eta garbiketarako egiteko. Tel. 646-821678.

– Emakumea eskaintzen da nagusiak edo umeak zaintzeko eta garbiketarako egiteko. Tel. 678-814941.

– Neska eskaintzen da txakurrak pasiatzeko eta goizez umeak eskolara eramateko. Tel. 687-033834.

– Emakumea eskaintzen da umeak edo nagusiak zaintzeko eta etxeko lanak egiteko. Esperientzia handia. Tel. 653-569377.

– Emakumea eskaintzen da nagusiak edo umeak zaintzeko. Baita gauzez ere. Tel. 664-357381.

– Neska eskaintzen da nagusiak edo umeak zaintzeko eta garbiketarako egiteko. Erreferentziak. Tel. 689-571882.

– Gizona eskaintzen da nagusiak zaintzeko. Esperientzia eta erreferentziak. Tel. 650-513412.

– Emakumea eskaintzen da nagusiak zaintzeko gauzez eta garbiketarako egiteko. Tel. 602-490595.

– Emakumea eskaintzen da nagusiak zaintzeko. Interna eta baita gauzez ere. Esperientzia eta erreferentziak. Tel. 628-529252.

– Emakumea eskaintzen da nagusiak zaintzeko. Interna eta baita gauzez ere. Tel. 602-089662 eta 631-901987.

– Neska eskaintzen da edozein lan egiteko. Tel. 631-527536.

– Neska eskaintzen da nagusiak edo gaixorak zaintzeko. Baita ospitalean ere. Erreferentziak. Tel. 631-343232.

– Emakumea eskaintzen da nagusiak zaintzeko eta garbiketarako edo etxeko lanak egiteko. Tel. 691-680634.

– Emakumea eskaintzen da nagusiak zaintzeko. Tel. 679-946934.

– Emakumea eskaintzen da nagusiak zaintzeko. Tel. 602-552182.

– Emakumea eskaintzen da nagusiak edo umeak zaintzeko. Tel. 691-616356.

– Emakumea eskaintzen da nagusiak zaintzeko eta garbiketarako egiteko. Tel. 671-763558.

– Emakumea eskaintzen da arratsaldetan eta asteburuetan garbiketarako egiteko. Tel. 689-003537.

– Emakumea euskalduna eskaintzen da umeak edo nagusiak zaintzeko. Esperientzia. Tel. 646-344937.

– Emakumea eskaintzen da nagusiak zaintzeko eta etxeko lanak egiteko. Tel. 680-526228.

– Emakumea eskaintzen da garbiketarako egiteko. Tel. 642-142985. Yolanda.

– Emakumea eskaintzen da nagusiak edo umeak zaintzeko eta garbiketarako egiteko. Tel. 632-166357.

– Emakumea eskaintzen da nagusiak edo umeak zaintzeko eta garbiketarako egiteko. Tel. 612-482203.

– Neska eskaintzen da nagusiak edo umeak zaintzeko eta garbiketarako egiteko. Erreferentziak. Tel. 602-648923.

4.2. Langile bila

– Soraluze-Plazentziarako pertsona behar da interna, adineko bat zaindu eta etxeko marxa eramateko. Tel. 615-720267.

– Emakumea behar da Eibarko taberna batean asteburuetan sukaldean lan egiteko. Esperientziarekin. Tel. 655-722967.

– Kamarera/o behar da Eibarko kafetegia batean. Euskera jakitea baloratuko da. Bidali curriculuma: extraeibar2015@gmail.com

– Kamarera behar da jatetxe batean asteburu eta jai egunetarako. Esperientziarekin. 620810120

– Jatorriz ingeles hitzuna den neska behar da bi ume zaintzeko. Egutero bi ordu, asteleheneretik ostiralera. Tel. 649-816474.

– Neska bi behar dira publizitate eskaintzarako egiteko. 22-28 urte artekoak eta Marketing edo Psikologia ikasitakoak. Sutondo Labaderokuan galdetu.

– Sukaldari-laguntzaile eta kamarera/o behar dira jatetxe batean. Tel. 665-308025 eta 685-286303.

5. Irakaskuntza

5.2. Eskaintzak

– Musikenen ikasitakoak gitarra klaseak ematen ditu. Adin guztietarako. Tel. 652-217737. Mariano.

– Klase partikularrak ematen ditut. DBH, Batxilergo eta Heziketa Zikloak. Talde txikiak. Tel. 685-739709.

– LHko irakaslea naiz eta klase partikularrak emango nituzke, ingelesa barne. Precio onean. Tel. 688-659861. Marzel.

– Italiara ikasi edo praktikatu nahi baduzu, maila guztietako eskolak eta mintza-praktikak eskaintzen dira Eibarren. Tel. 645-723818.

– Klase partikularrak eskaintzen dira LH, DBH eta Batxilergoko ikasleentzat. Tel. 695-749105.

– DBH, Batxilergo eta Unibertsitateko Matematikak, Fisika, Kimika, etab.-eko klaseak ematen dira. Banakako klase egokituak edo 2-3 ikasleko taldekoak. Goizez ikasteko aukera. Tel. 677-592509. Alberto.

6. Denetarik

6.1. Salgai

– Binilozko diskoak, singleak eta LP-ak erosten ditut. Tel. 688-624326.

– Sehaska salgai, koltxoia eta guzti. Egoera oso onean, gubxi erabilita. 70 euro. Tel. 687-675484.

6.2. Eman

– 2 urteko pitbull txakurra oparitzen da. Marroia, tamaina ertainekoa eta ondo hezita. Tel. 647-952677.

6.3. Galdu/Aurkitu

– Eguzkitako betaurrekoak galduta nituen Arrate egunean, zelaian. Funda barruan daude eta forma karratua dute. Tel. 665-732640.

1. ETXEBIZITZA

1.1. Salgai

1.2. Errentan

1.3. Konpartitzeko

1.4. Etxe trukaketa

2. MOTORRA

2.1. Salgai

3. LOKALAK

3.1. Salgai

3.2. Errentan

4. LANA

4.1. Lan bila

4.2. Langile bila

5. IRAKASKUNTZA

5.1. Eskaerak

5.2. Eskaintzak

6. DENETARIK

6.1. Salgai


6.2. Eman

6.3. Galdu/Aurkitu

6.4. Bestelakoak

943 20 09 18

publizitatea@etakitto.eu



CAMBRIDGE ENGLISH

Language Assessment Authorised Centre

CAMBRIDGE ESOL EXAMINATIONS CENTRE ES 438

ABENDUKO DEIALDIA
AZTERKETAK Eibarren

MATRIKULAK
Urriaren 2tik 20ra

AZTERKETA DATA

PET	(PAPERS 1,2,3)	Abenduak 1 (<i>ostirala</i>)	89 euro
PET	(AHOZKOA)	Abenduak 2 (<i>larunbata</i>)	
FCE FS	(PAPERS 1,2,3,4)	Abenduak 2 (<i>larunbata</i>)	170 euro
CAE	(PAPERS 1,2,3,4)	Abenduak 2 (<i>larunbata</i>)	175 euro

INFORMAZIO ETA MATRIKULAK

ARRASATE:	Parlance	943 77 06 83	ONDARROA:	Esther Leon	639 53 74 98
	Idiomaster	943 79 07 84	DEBA:	Akabi	943 19 16 79
BERGARA:	Espolon School of English	943 76 03 53		North Street English	943 19 25 00
BILBAO:	Capital Languages	94 445 73 04	DURANGO:	San Jose Maristak	94 681 00 58
EIBAR:	Anglo-American	943 20 01 08	MENDARO:	Akabi	943 75 50 55
	Link Idiomas	943 20 39 59	MARKINA:	Chatterbox	94 616 96 39
ERMUA:	Akerlei	943 17 66 32	ELORRIO:	Ontrack Hizkuntza	94 658 46 73
ELGOIBAR:	Kensington School of English	943 74 02 36	BERRIZ:	Speak up	94 622 52 94
	Key Academia de Inglés	943 74 30 44	ZUMAIA:	Golden Gate	943 86 50 20
OÑATI:	Academia Sheila Fritz	943 78 20 91	MUTRIKU:	Gogoz	943 60 43 58

ORBEA HAURRESKOLA

HaurreSkolak



Bittor Sarasketa, 11 Tel. 943 20 03 84
orbea.eibar@haurrekolak.eus



Matrikulazioa: **urriaren**
2tik 9ra



EIBAR

HORTZ KLINIKA CLÍNICA DENTAL

- ◆ KALITATEA PREZIORIK ONENEAN, TRATAMENDU GUZTIETAN
- ◆ ARRETA PERTSONALIZATUA, HURBILA ETA PROFESIONALA
- ◆ HAGINLARI KOLEGIATUAK, 10 URTE BAINO GEHIAGOKO ESPERIENTZIAREKIN
- ◆ ODONTOLOGIA ZERBITZUA, HAURDUNALDITIK | KLINIKAN KONTSULTATU



R.P.S. 259/15
MAITANE G. INIGUEZ
ODONTOLOGIAN LIZENTZIATUA

ZERBITZU GUZTIAK KLINIKAN BERTAN

- ◆ ODONTOLOGIA OROKORRA
- ◆ HAUR-ODONTOLOGIA
- ◆ HORTZ ZURITZEA ETA ESTETIKA

- ORTODONTZIA ◆
- PROTESI FIJOA ETA KENTZEKOA ◆
- ZIRUGIA ETA INPLANTEAK ◆

SAN AGUSTIN KALEA, 4 BEHEA EZKERRA, 20600 EIBAR

TELEFONOA 943 537 076
www.eibarclinicadental.com

MUGIKORRA 688 884 808
info@eibarclinicadental.com